Petti Eskoriatzan

Axtrokik gonbidatuta saioa egin zuen atzo

KULTURA, 25

Mailari eutsiko diote Eskoriatzako neskek

Zapatuan denboraldiko partidu onena eginda 2. mailan segituko dute

KIROLA, 19

Sastre eta Botanz

Emanaldia egin zuten Espaloian

KULTURA, 22-23

ASTELEHENEKO

Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko maiatzaren 23a • 2. urtea • 58. zenbakia • 0,90 euro

Arrasateko kaleak jendez gainezka bitxikeriaz betetako azoka ikusteko

Datorren urtean azokaren eremua handitzeko eskaera egingo du enpresa antolatzaileak

SENDOTUTAKO AZOKA
Bi urte besterik ez dituen azokak 25.000 bisitari erakarri ditu

102 POSTU DOTORE
Artisautza postuak, tabernak eta eskulan tailerrak zeuden, guztiak Erdi Aroan girotuak

SALMENTA ONAK
Artisauak pozik agertu dira, salmenta onak egin dituztelako asteburuan. Aurtengoan zortzi postu Debagoienekoak ziren

Mugimendu handia egon da asteburu honetan Arrasateko alde zaharrean. Artisautza, kaleko animazioa, malabaristak, fakirrak, suge-sorgintzaileak...

Arrasatek 600 urte egin du atzera bi egunez Erdi Aroko giroan murgiltzeko. Tentazio asko eta denak batera. 2-3

AINTZANE AGIRRE

Kaleko animazioa etengabea izan da bi egunez. Sugeek, hegazti harrapariek eta malabarrek jende multzoa bildu dute euren inguruan.

Merezitako omenaldia areto futbol taldeari atzo

Eskoriatzarrak Lehenengo Nazionalera igo dira 16

AINTZANE AGIRRE

Sindikatuen bilkura deia eguenerako

ELA, ESK eta STEE-EILASek lan segurtasuna aldarrikatuko dute Bergaran 9

Jardun elkartea 15. urtemuga ospatzen hasiko da etzi

Bergarako euskara elkarteak zapatura arteko ekitaldi sorta antolatu du. Besteak beste, euskara elkarteen datozen urteotarako erronkak aztertuko dituzte. 5

GUREAN

• Gurean ere igarri da antxoaren eskasia: bost aldiz egon da salgai hemengoa | 4
• 300 bat umek jardun zuten atzo dantzan Bergaran, Haurren Egunean | 5

Jose Luis Garitano ADEGIFOReko zuzendariarekin jardun dugu Lanbide Heziketaz | 7

ARRASATE BI EGUNEZ ERDI AROAN MURGILDUTA

Nahikoa izan dira bi edizio hitzordua sendotzeko

Antolatzaileen esanetan 25.000 pertsona hurbildu dira azokako ikuskizunak eta postuak ikustera

Artisauek salmenta onak egin dituztela esan digute. Aurten, zortzi Debagoienekoak ziren

Larraitz Zeberio

Erdi Aroko Azokak jende ugari bildu du aurtengoan ere Arrasateko alde zaharrean. Iazkoan ere jende ugari ibili zen, baina euskararen eta herriko taldeen presentzia urriak kritikak jaso zituen.

"Postu guztiei euskarazko kartelak jarri dizkiegu" adierazi zigun aurtengo azoka antolatu duen Elgoibarko EAB enpresako arduradun Enrique Agotek. "Animazio eta eskulan tailer guztiak euskaraz dira. Nik uste altu eta argi esan dezakegula Arrasatekoa dela euskaraz egin den lehen Erdi Aroko Azoka".

102 POSTU IKUSGAI ALDE ZAHARREAN BARRENA

Joan den urteko azokari egindako beste kritika, herriko taldeen eta eskualdeko artisauen presentzia urria izan zen. Aurtengoan 102 postuk osatu dute Erdi Aroko Azoka. "%20 Euskal Herrikoak dira eta zortzi bat Debagoienekoak", azaldu zigun Enrique Agotek.

Plazan bertan topatu genuen Inma Delgado bitxigile arrasatearraren postua. "Aurten plazan bertan dut postua eta oso ondo saltzen ari naiz. Laguntzaileak ekarri behar izan ditut jende guztia artatzeko".

Azokan egun pasa egiteko aukera izan da aurtengoan. Artisau postuak 63 ziren, eskulan tailerrak 15 eta tragoxka bat hartu edo zer edo zer jateko tabernak, berriz, 30. "Arrasatek oso alde zahar interesgarria du gauza hauetarako", zioen Agotek. "Sarrera nagusi bat dauka. Jende gehiena Sebero Altubetik sartzen da eta zirkuitu zirkularra du. Guretzat bikaina da".

Sebero Altuben azoka arabiarra egon zen produktu eta jaki askorekin

Kale animazioa etengabea izan zen. Malabaristak, animali ikusgarriak, musikariak...

LARRAITZ ZEBERIO

Hainbat eskulan ikusteko aukera izan zen azokan. Askok jakin-min handia sortu zuten.

IKUSKIZUNAK BARRA-BARRA

Malabaristaren akrobaziak, fakirraren erakustaldiak, hegazti harraparien erakusketak... bitxikeria asko egon da ikusgai astetan buruan Arrasaten. Etxeko taldeek ere euren tartea izan dute. Arrasate Musikaleko harizko taldea eta Doke antzerki taldea kaleetan barrena ibili ziren.

Nahiz eta oraindik gaztea izan Arrasateko Erdi Aroko Azokak jende asko biltzen du

Oso modan egon arren, Erdi Aroko Azoka gutxik biltzen du Arrasatekoak beste jende. Aurten egin da bigarren urtez eta dagoeneko 25.000 bisitari izan ditu. "Jende uholde handienak eguerdi partean izan dira", jakinarazi digu enpresa antolatzaileko Enrique Agotek. "Artisauek interes handia dute azoka honetara etortzeko. Jendea ibiltzen da eta erosi egiten du. Berrehun eskaritik gora jaso genituen. Aukeraketa egin behar izan dugu".

Jende asko da eta datorren urtean gehiago handitu beharko da azokaren esparrua

Azokaren esparrua handitu egin da aurten, baina hala eta guztiz ere, txiki gelditu da bertaraino hurbildu diren bisitari guztiendako. "Postu asko dira eta lekua behar dute", zioen Agotek. "Akats bat izan dugu Portaloian; izan ere, bertan jarri dugun postua traban dago. Jende asko ibiltzen da han eta tapoiak sortzen dira." Hurrengo urteetan artisauen postu batetik bestera tarte gehiago utzi nahiko lukete jendea lasaiago ibiltzeko.

Bitxikeriaz jositako azoka izan da aurtengoa. Usain eta kolore askotakoa

Artisau postuez gain oso gauza bitxiak egon dira aurtengo azokan. Nahi izan duenak asto gainean ikusi ditu postuak. Usain eta jatorri guztietako jakiak dastatzeko aukera izan da. Tarota ere egon da eta askok papertxo batean eraman dute idatzita euren izena arabieraz. Azokak, bestalde, Arrasateren historiaren pasarte garrantzitsu bat ezagutzeko aukera ere eman du. Domeka iluntzean *Arrasateren erreketa* izeneko ikuskizuna egin zen.

ARRASATE BI EGUNEZ ERDI AROAN MURGILDUTA

Hegazti harrapariak egon ziren ikusgai azokan. Arrasateko plazan zenbait erakustaldi ere egin zituzten.

Artisauek salmenta onak egin zituzten bi eguneko azokan.

Aurtengoan euskaraz egin dira tailer guztiak.

Haurrendako tentazio handiak egon ziren azokan.

Egurrezko tornuak ikusmin handia sortu zuen.

• GUSTATU ZAIZU ERDI AROKO AZOKA?

BEÑAT ETA ANDER |
ARRASATE

"Suge erraldoi bat ekarri dute eta oso ikusgarria zen. Azoka asko gustatu zaigu", esan ziguten pozik. Eskuan zituzten gurasoek erositako bi ezpata.

ANE, ELENA, NATALIA ETA OLATZ |
ARRASATE

Bi egunetan ibili da laukote hau azokan. "Kaleetan barrena dabiltzan malabaristak asko gustatu zaizkigu. Iluntzean egiten dituzten su jokoak ere politak dira". Postuz postu ibili ziren eta bitxiak zein jaki gozoak erosi zituzten azokan.

NURIA |
MADRIL

Tarot postuaren aurrean aurkitu genuen ilaran zain. "Zer esaten didan ikustera nator". Azoka garestia iruditu zaio.



JON ETA MANU |
ARRASATE

"Postuak gustatu zaizkigu, baina kale antzerkia iazkoa baino eskasagoa da. Gauza asko berdinak dira, suge erakusketa ezik. Hori ondo dago".

ANE ETA LEIRE |
ARRASATE

"Gustura ibili gara azokan, baina iazkoa politagoa zen, parte hartzeko tailer gehiago zegoelako. Bitxi postuak asko gustatu zaizkigu".

DENBORALDI ESKASA | 7 ETA 10 EURO ARTEAN SALDU DIRA ASTEON ANTXOAK DEBAGOIENEAN

Bost egunetan bakarrik izan dute hemengo antxoa arrandegietan

Donibane Lohizune, Cadiz, Tarragona… Hainbat lekutan harrapatutako bokartak erosteko aukera izan da ibarreko arrandegietan

Marijo Deogracias

Garesti, oso gutxi, kanpokoa… Antxoak dira. Azken egun hauetan denon ahotan dabilen gaia, baina gutxiren plateretara iristen direnak. Euskal arrantzaleek etenaldi biologikoa eskatzen dute antxoa suspertze aldera. Portuan daude baxurako ontziak eta bitartean, antxoazaleak, "hemengo" bokarta noiz jango zain. Arrantzaleek arrainik harrapatu ezean, beste hainbat gremio ere lan barik daude. Arrandegietan ere igarri dute antxoa falta. Gurean, esaterako, "antxoa barik ez gara egon, baina hemengo antxoarik ia ez dugu izan. Bost aldiz ekarri dugu arrantza-garai honetan" azaldu digu Bergarako Kabutzi arrandegiko Iñakik. Kontatu digunez, "besterik ezean Tarragona eta Cadizko antxoak ekarri ditugu. Gustuan aldea igartzen da, batez ere frantsesekin; baina jendeak erosten ditu".

M.D.

Garestitxo saldu arren, jendeak jarraitu du antxoa erosten. Hala ere, ez da euskal arrantzaleek harrapatutakoa izan.

EROSI BAI, BAINA GARESTI

Zapatu goizean 6,9, 7,5 eta 8,5 eurotan zeuden salgai antxoak bisitatu genituen arrandegietan. Garestiago ere egon direla esan ziguten saltzaileek, baina "oso gutxi egon delako", zioten hirurek. Oñatiko Fernandez-eko Angelak esan zigunez "hemengo 200 bat kilo antxoa baino ez ditugu saldu". Bestelako arrainen bat ere gutxiago sartu den galdetuta, txitxarroa aipatu digu Iñakik; Bergarako Leteneko Germanek, berriz, "lan honetan hasi nintzenetik arrain aukera gutxiago dago" esan digu, eta "asteon iritsiko dela arrandegietara hemengo antxoa". Osterantzean Cadizkoa aukeran.

• IGARRI DUZU BOKARTAREN KOSTERA TXARRA?

ANGELA |
FERNANDEZ ARRANDEGIA, OÑATI

"Denboraldi txarra izan da. Egun batzuetan antxoa ezin ekarrita geratu gara"

Zapatu goizean jendea zain zuela kasu egin zigun Angelak: "Antxoa denboraldi txarra izaten ari da; hemengo bokarta bost aldiz baino ez dugu izan. Donibane Lohizunetik ekarri behar izan dugu hainbat aldiz, baina ezin ekarrita ere geratu gara egun batzuetan. Gainera oso garesti egon da; 13 eurora ere iritsi izan da".

FELIX |
ITSASOKO ARRANTZAZALEA

"4-5 urteren bueltan igarri egin da arrain gutxiago dabilela. Egun baten 60 txitxarro hartzen nituen"

Errekan hasi zen arrantzan Felix, baina orain dela 15 bat urte itsasoan hasi zen. Txalupan joaten dela azaldu digu eta aspaldian "geroz eta gutxiago harrapatzen da. Orain dela 4-5 bat urtera arte egun baten 60 bat txitxarro hartzen nituen; gaur, bat harrapatzeko zorte handia behar da", azaldu digu Felixek.

MERTXE |
ARRAIN EROSLEA

"Kanpotik ekarritako antxoak ere erosi izan ditut, baina hemengoek gustu hobea dute"

Antxoak erosteko asmotan zebilen Mertxe arrandegian. "Arrainzalea naiz eta antxoak asko gustatzen zaizkit, baina garestiegi egon dira eta arrainetan aukera zabala dagoenez, beste arrainen bat erosi izan dut" azaldu zigun. Kanpotik ekarritako antxoak ere probatu dituela esan zigun, "baina hemengoek gustu hobea dute".

GERMAN |
LETE ARRANDEGIA, BERGARA

"Cadiztik ekarri ditugu antxoak, hemengoa egon ez denean. Jendeak gustura jaten ditu"

Germanek kontatu zigunez "aurten 7 bat egunetan izan dugu hemengo antxoa. Merkeen ia 9 eurotan eta garestien 12 eurotan izan ditugu. Cadiztik ere ekarri izan ditut eta jendeak gustura jaten ditu, hemengoen antz handia dute, eskasenak Frantziatik ekarritakoak dira". Hala ere, baikorra da eta garai hobeak etorriko direla uste du.

Jardun euskara elkarteak etzi hasiko ditu 15. urtemugako ekitaldiak

1990eko maiatzaren 17an sortu zuten Bergarako elkartea. Datozen urteetarako erronka berriez jardungo dute ospakizun ekitaldietan

M.B.

Bergarako Jardun Euskara elkarteak 15. urtemuga ospatzen du aurten eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Etzi, eguaztena, hasiko dira ekitaldiok eta zapatura bitartean zer ikusi, entzun eta esan egongo da.

Ekitaldiotan landuko dute, besteak beste, euskara elkarteek etorkizunean ze erronka izango dituzten. Horretarako hainbat aditurekin mahai-ingurua antolatu dute eguaztenean. Hori, zapatuan egingo duten mintegiaren oinarria izango da. Jarduneko kideek zehaztu duten moduan "eguazteneko ideiak eta informazioa mintegian erabiliko ditugu, Jardunek datozen urteotan jarraituko duen bidea zehazteko. Izan ere, argi dago egoera aldatu egin bada, helburuak ere aldatu egin behar direla. Dena den, euskara bultzatzeko lanean jarraituko dugu, erronka berriei aurre eginez".

EUSKARA BULTZATZEN

Herrian euskararen presentzia sendotu eta normalkuntzarako prozesuan laguntzeko sortu zen Jardun. Gaur egun 563 bazkide ditu eta ekintza ugari eramaten ditu aurrera: bertso eskola, triki eskola eta gazteendako aisialdi gunea, besteak beste.



ARTXIBOA

10 urte bete zituztenean ere ekitaldi sorta zabala antolatu zuten.

Datuak

EGUAZTENA, 25
- **19:00**: Mahaingurua, kulturaetxean: *Zeintzuk izango dira euskara elkarte baten erronkak hurrengo 15 urteotan?* Hizlariak: Julen Arexolaleiba eta Iñaki Arruti.

EGUENA, 26
- **17:00-19:00**: Jolasleku Ibiltaria, Munibe plazan.
- **19:30**: *Gizon ustelgaitza* bakarrizketa, Joxe Mari Carrererekin, Zabalotegin.

EGUBAKOITZA, 27
- **19:00**: Urte amaierako jaialdia, Zabalotegin.

ZAPATUA, 28
- **10:00**: Mintegia, kulturaetxean: *Gaur egungo egoeraren diagnostikoa eta hurrengo urteetarako helburuak eta erronkak.*
- **14:30**: Bazkaria.
- **23:00**: Kontzertua: Azkaiter Pelox, Matxura eta Kerobia, gaztetxean.

Haurren Euskal Jaiak 300 dantzari elkartu zituen atzo Bergaran

Honelako jaietan urtetik urtera gero eta dantzari gutxiago elkartzen direla ohartarazi dute antolatzaileek

A.G.

Goiz eta arratsaldez aritu ziren dantzan atzo, domeka, Bergaran elkartutako 300 dantzari gazteak. Dotore jantzita etorri ziren; baita dantzarako beharrezkoak zituzten makila, uztai, ezpata eta gainerako material guztiarekin ere.

Goizeko 10:30ean elkartu ziren guztiak Seminarioko patioan. Bederatzi dantza talde batu ziren bertan, bost Debagoienekoak: Oreretako Ereintza, Urretxuko Lurra, Gorlizko Aratz, Soraluzeko Urrats, Aretxabaletako Loramendi, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu taldeak,Oñatiko Oinatz eta Bergarako Gazte Alai taldea.

San Martin plazan alkate eta alkatesa txikiek ongi etorria egin ondoren, talde guztiak herriko kaleetan barrena ibili ziren dantzan bazkal ordura arte.

DANTZARI GUTXI

Xamatz dantza taldeak antolatu du Udalaren eta Abarka taldearen laguntzaz Bergarako 32. Haurren Euskal Jaia. "Gero eta dantzari gutxiago etortzen da horrelako topaketetara", azaldu zigun antolakuntzako kide batek. "Gero eta zailtasun gehiago ditugu, era berean, haurrak bazkaltzeko etxean hartuko dituzten familiak topatzeko". Zailtasunak zailtasun, dotore aritu ziren dantzan arratsaldean ere etorritako 300 dantzariak.

AINTZANE AGIRRE

Gozeian kalez ibili ziren dantzan; arratsaldean alardea egin zuten.

• MENDIGUREN ABIZENA DUTENEK TOPAKETA EGIN ZUTEN ATZO, OÑATIN

EHUN BAT PERTSONA BATU ZIREN OÑATIKO BAZKARIAN ATZO

Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Amurrio, Orduña... hainbat herritatik etorritako Mendigurendarrak Oñatiko Larraingain elkartean batu ziren atzo bazkaltzeko. Goizean beste hitzordu batzuk ere izan zituzten. Ezkion izan ziren, Igartubeiti baserrian, hain zuzen. Izan ere, XVI. mendeko baserri eder hori da Mendiguren abizenaren sorburu, eta huraxe ezagutzera hurbildu ziren. Tartean aurpegi ezagunak ere baziren, Xabier Mendiguren Bereziatu, esaterako. Lehen topaketa iaz egin zuten Fernando Mendiguren oñatiarraren ekimenez, Arabako Mendiguren herrian.

MIRARI ALTUBE

EUSKARA | EUSKARAREN ASTEKO EKITALDI SORTARI BUKAERA BOROBILA EMAN ZIOTEN ARETXABALETARREK ZAPATUAN, EUSKARAREN EGUNAREKIN

Loramendikoak oso pozik Euskararen Eguneko parte-hartze zabalarekin

Herritarren parte-hartzea nabarmendu dute euskara elkartekoek eta balorazio oso positiboa egin dute

AINTZANE AGIRRE

Bazkarian 200 lagun inguru batu ziren herriko elkarteek prestatutako babak jatera.

Monika Belastegi

Niaz, zuaz, euskeraz! leloak batu ditu Aretxabaletako Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako Euskararen Asteko ekitaldiak. Bukatu, berriz, Euskararen Egunarekin bukatu ziren ekitaldiok, zapatuan. "Egun mundiala" Leire Lardizabal Loramendiko kidearen esanetan "herritarrek izan duten parte-hartzeagatik, batik bat" esan zigun, pozik.

Aste osoaren gaineko balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek, eta bereziki hiru ekitaldi nabarmendu dituzte: eguaztenean euskararen kalitatearen gainean Andoni Egañak eta Joxerra Gartziak egindako hitzaldia; eguenean *Euskara senzilloaren manifestua* antzezlana, eta zapatuko Euskararen Eguna jaia, hain zuzen ere.

EGUN BOROBILA

Zalantza barik herritar gehien batu zituena, zapatuko jaia izan zen. Goizean hasi ziren ekitaldiak eta aurten ere gehitu diote berrikuntzarik Loramendikoek. Mitarte kalean egindako gazta dastaketan, esaterako, txotx egiteko kupela ere jarri zuten. Bi euroren truk edalontzia eskuratu eta nahi adina sagardo edan zuten bertaratutakoek. Gainera, edalontziok Astearen leloa zuten idatzita, beraz, etxera eramateko oroigarri polita izan da edalontzia.

Berrikuntzen artean, txotx egiteko aukera izan zen gazta dastatzean

Herriko kontuez jardunda erraz iritsi zen Trikimailu taldea ikusleengana

Eguerdiko bazkarian ere giro aparta egon zen; 200 bat lagun batu ziren Uratz-Alde, Urbaltz eta Muru-Alde elkarteek prestatutako babak jan eta Batzokiak egindako kafea hartzera. Euskararen aldeko jaia "herrikoia, bertokoa" izatea nahi izaten dute urtero antolatzaileek eta hori bazkarian ere nabaritzen da, urtetik urtera herriko hainbat elkartek prestatzen dute eta bazkaria, Lardizabalek azaldu duenez. Loramendiren baitan sortutako Trikimailu antzerki taldea ere ez zen atzean geratu zapatuko estreinaldian. Herrikoak izatean eta herriko kontuen gaineko antzezlana egitean erraz heldu ziren ikusleengana. Beste hainbat gauza aipagarri ere izan zituen jaiak, baina aipagarriena guztietan: "parte-hartzearekin herritarrek euskararekiko azaldutako elkartasuna".

● OÑATIKO LH LARRAÑA INSTITUTUAREN 25. URTEMUGA

AINTZANE AGIRRE

25 URTEOTAKO ZAZPI ZUZENDARI OHIAK ETA HAINBAT IRAKASLE OMENDU ZITUZTEN

Hainbat ikasle, irakasle, guraso eta instituziotako ordezkariak batu ziren ETEOko areto nagusian. Esaterako, Lanbide Heziketako zuzendari Iñaki Mugika, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde ordezkari Juan Jose Agirrezabala, Zuazola-Larraña institutuko gaur egungo zuzendari Kepa Altube eta Oñatiko Udaleko ordezkariak. Guztiek izan zituzten zorion hitzak institutuarendako, baina unerik hunkigarriena omenaldiari tartea egin ziotenean etorri zen. Batetik, 25 urteotako zuzendari ohiei oroigarria banatu zieten: Malen Imazi, Javi Beitiari, Georgina Peñari, Iñaki Urretari, Xabier Egizabali, Ana Mari Arregiri eta Agustin Lakari. Bestetik, oroigarria jaso zuten, Juantxo Imaz eta Jesus Sasiain irakasleek (egindako lan guztiagatik); German Aginagaldek gurasoen izenean, eta lehen promozioko ikasle izan zen Roberto Arkauzek.

● EHNA-REN 'ERABILI EGUNA'

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

GEUREAN 2.500ETIK GORA LAGUNEK DUTE EHNA

Zapatuan, Bai Euskal Herriari ekimenak *Erabili Eguna* ospatu zuen Euskal Herri osoan. EHNA tresna baliagarri eta erabilgarria dela frogatzea zuen helburu eta geurean ere izan zuen oihartzuna. Debagoienari dagokionez, ibarreko herri guztietan dago EHNA egiteko aukera, eta dagoeneko, 2.500etik gora lagunek egin dute. Bestalde, Bai Euskal herriari taldeak, *Euskal Herria, izEHNA eta izana* leloarekin ekainaren 12an Zestoan egingo duten Naziotasun Egunerako dei ere egin du.

Arizmendi ikastolak antolatuta eraikuntza sektorera bideratutako lanbide heziketaz aritu ziren joan zen eguenean Aretxabaletako Arizmendiren egoitzan.

Besteak beste, ADEGIFOR fundazioko zuzendaria aritu zen han. Bergararra da sortzez, eta urteak daramatza enpresetara bideratutako trebakuntzaz arduratzen.

Bergarako lanbide heziketako ikastetxeko irakasle izan zen, 1981-90 artean lanbide heziketako arduradun Jaurlaritzan eta harrezkero Adegin ari da lanean.

JOSE LUIS GARITANO | ENPRESABURUEN TREBAKUNTZARAKO ADEGIFOR FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

"Eguneroko arazo txikiei erantzungo dien langilea behar da, lan-taldea motibatuko duena"

Marijo Deogracias

Nola dago eraikuntzaren sektorera bideratutako hezkuntza?

Sektore oso garrantzitsua da eraikuntzarena; Eustateko datuen arabera, Gipuzkoan 9.000 eraikuntza enpresa daude eta 24.000 behargin ari dira. BPGren %10-12 suposatzen du. Era askotako enpresak daude. Egia da, eraikuntzaren sektorean, orain dela 10-15 urte hasi zirela ikastetxeetan lan arlo horretan jarduten; Altzako Lanbide Heziketako Institutua orduan sortu zen Gipuzkoako enpresek, Askorgik, bultzatuta. Orduan ere, sektoreak prestatutako jendea behar zuela ikusi zuen. Ordutik hona Lanbide Heziketan bestelako eskaintzak ere baditugu, zorionez; baina beste premia batzuk ere bai eta Arizmendik horretan saiatu nahi du.

Gure ibarrean Lanbide Heziketak badauka esperientzia.

Debagoiena historikoa da eta prestigioa ere badauka: batetik, eskola politeknikoak eman ziona eta, bestetik, gaur egun estatu mailan ere eskolarik onenetarikoa delako. Bergarako lanbide eskolak 75 urte bete berri ditu. Ez ditugu ahaztu behar Debabarreneko Armeria eskola eta makina-erremintaren eskola, Eibarren eta Elgoibarren. Debarroa izan da, orokorrean, estatu eta Europa mailan erreferentzia, ereduagatik, emaitzengatik, enpresak sortzeko ahalmenagatik, teknika aldetik, ingeniaritzara eta unibertsitatera emandako pausuengatik... Lanbide Heziketak jakin egin du enpresarien premiak bideratzen eta garbi izan dute beti ikasleak praktikak eta ikasketak uztartu behar dituela.

Zein da hortaz lanbide heziketaren erronka?

Enpresek geroz eta denbora gutxiago dute lan-taldera gehitzen denari irakasteko; errentagarritasuna eta produktibitatea dira lehentasun enpresa barruan eta langile berriak ez du denborarik izaten lan-taldera egokitzeko. Bestalde, ikasleak ere berehalako errekonozimendua nahi izaten du eta horri dagokion aldarrikapen ekonomikoa. Horrek dakarrena da ikasketa zentroetatik ateratzen diren ikasleak oso ondo prestatutako beharginak izan behar direla, gutxieneko esperientzia dutenak eta produkzio taldera berehala egokituko direnak. Jakina, hau guztia oso zaila da lortzen; hala ere, industri sektorean lortu da bi arloak ondo uztartzea, baina eraikuntza sektorean gauza asko dago egiteko.

"Debagoienak prestijio handia dauka lanbide heziketaren arloan. Europako eskolarik onenak ditu"

"Confebaskek izan dezakeen enpresaburuen ordezkaririk egokiena da Migel Lazpiur"

Zer behar da hortaz eraikuntzan?

Prestakuntza teknikoa duten ikasleak behar dira, baina, batez ere, erdi mailako arduradunak, hau da, obrako arduradunak. Enpresari nortasuna emango dion eta eguneroko arazo txikiei erantzugon dien langilea behar da, lan-taldea motibatuko duena. Bestetik, gestio arloa ere lantzeko dago: kalitatea, prebentzioa, ingurumena, teknologia berriak (domotika)...

Baina eraikuntzaren sektoreaz entzuten den bakarra lan istripuak eta enpresa batzuek irabazten duten dirua da.

Horrela da. Exijentzia maila geroz eta handiagoa da eta lan egiteko makinak ere berriagoak dira. Geroz eta bizkorrago jarduten dugu eta horrek guztiak bere ondorioak ekartzen ditu. Egokitzapena behar dugu eta zentzu horretan, langilea egokitu egin behar da; prestakuntza izan behar du. Enpresek nahi dutena da prestatutako jendea eta erantzun zehatzak emateko gaitasuna duena. Zentzu horretan prestakuntza zikloak lanen malgutasunera egokitu behar dira: edozein unetan edozein lan egiteko gaitasuna duen behargina behar da.

Adegiko kide zara aspaldi eta, zer gertatuko da Confebaskeko lehendakariaren izendapenarekin?

Ez dut uste arazorik izango denik. Bizkaia eta Arabako enpresaburuen elkarteekin gertatutakoa forma interpretazio bat izan da. Ez dago arrazoirik pentsatzeko gauzak ez direla pentsatu bezala joango.

M.D.

Bergararra da sortzez Jose Luis Garitano.

Hortaz bergarar bat izango da Confebaskeko lehendakari?

Eta enpresaburu ona, lanbide heziketarekiko sentsibilitatea duena, langile, gizarte eta euskal kulturarekiko konpromisoa duena. Migel Lazpiurrek enpresa txikiekiko sentsibilitate handia du (hein baten enpresa txiki batetik datorrelako) eta kontuan izanik Euskal Herriko enpresen %98,05 era horretako enpresak direla ez daukat dudarik ordezkaririk onena dela.

Eraikuntza sektorerako beharginak sortzeko asmoz heziketa zikloa hasiko du Arizmendik

Arizmendi ikastolak *Eraikuntza eta Lanbide Heziketa: profil profesional berriak* izeneko mahai-ingurua egin zuen joan zen eguenean. Irailean hasiko du Arizmendik eraikuntzara bideratutako bigarren zikloa eta sektorearekin hartu-emanetan jartzeko asmoz antolatu zuen mintegia Aretxabaletan. "Ikastolatik bultzatu gura genuke eraikuntza ikasketen hobekuntza eta horretarako ezinbestekoa da zuen, sektorearen, laguntza" esanez hasi zen Edurne Erauskin Arizmendiko Lanbide Heziketako kudeatzailea. Adegifor fundazioko Jose Luis Garitanok argi laga zuen ezinbestekoa dela eskola eta sektorea elkarrekin aritzea eta Donostiako Altzako eskola jarri zuen adibide legez. Jose Manuel Egaña Sukia eraikuntza enpresako ordezkariak "erdi mailako arduradunen gabezia" azpimarratu zuen; "obran arituko den lan-taldea gidatzeko. Horiek nola lortu da daukagun erronka, besteak beste". Horren haritik Arrasateko aprendiz-eskola ere gogoratu zuten, baina Karmelo Azkoitia, Lanbide Heziketaz dezente dakien Arizmendiko kolaboratzaileak gogoratu zuenez, "XXI. mendeko eskola egin behar dugu. Egungo premiak asetu bai, baina etorkizuneko beharginak prestatzeko ahalmena izan behar du eskolak".

PUBLI-ERREPORTAJEA

SEIN Taldeak aurrea hartu du, industria-zerbitzua aurkeztuz

Industria-horniduraren alorreko izen handiko hiru enpresaizan dira, Memesa, Etxeberria eta Lausa, orain dela gutxi SEIN Taldea sortu dutenak, hornidurarik aurreratuena eskaintzeko asmoz



Garai batetik hona, industria-horniduran espezializatutako hiru enpresa, Memesa, Etxeberria eta Lausa, gabeziak sumatzen ari ziren beren negozioetan. Industria-korporazio handietan, eta industria osoan orokorrean, erantzun eraginkorra eta homogeneoa nahi zuten lantegi guztietan, kokatuak dauden lekuan bertan.

Eskaera horiei erantzuna emateko asmo horretan, Memesa, Etxeberria eta Lausak euren egoera aztertu eta ondorio batera iritsi ziren: ikusirik haietako bakoitza industria-horniduraren alor desberdinetan espezializatua dagoela eta duten bezerokopurua kontuan izanik, elkartuta erabateko gaitasuna izango dute zerbitzu hurbilagoa, eraginkorragoa eta homogeneoagoa eskaintzeko beren bezeroen lantegi bakoitzean.

Elkartuta euren bezeroen eskaera guztiak estaltzen dituzte eta zerbitzu hobea eta osatuagoa eskaintzen diete. Horretarako sortu da SEIN Taldea.

50 laguneko langile taldea du, 8.000 m2ko instalazioak, ongi kokatua dago Azpeitian, Abadiñon, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin, eta aitzindaria da erabateko industria-hornidura eskaintzeko orduan. Eta hori guztia bertako langileek duten ezagutza eta esperientzia handiari eta bezero kopuru garrantzitsuari esker lortu da.

Ohiko industria-hornidura baino zerbait gehiago nahi eta eskatzen duten industria saileko enpresentzat sortu da SEIN Taldea. Hobekuntza hori bermatzeko eta merkatuan dauden premia horiek estaltzeko gauza diren erreminta guztiak eskaintzen dizkizu.

Industria-horniduran aldaketak beharrezkoak direla eskatzen ari dira lehen mailan dauden korporazio handiak, eta hori kontuan izanik egiten du aurrera SEIN Taldeak. Zerbait gehiago duen industria-hornidura eskaintzen du, integrala, hornikuntza prozesuan eragina duena eta kudeaketa hobetzeko baliagarria izango dena.

Arlo desberdinetan espezializatutakoak diren hiru enpresa horiek elkartzeak sendotasun handia eman dio taldeari. Informazio guztia: *www.sein.es*

Arlo desberdinetan espezializatuta dauden hiru enpresa horiek elkartzeak sendotasun handia eman dio taldeari

SEIN Taldeak 50 laguneko langile taldea du, 8.000 m2ko instalazioak, eta lantegiak Azpeitian, Abadiñon, Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin

SEIN Taldeak izugarrizko iraultza ekarri du industria-horniduran industriei zerbitzua eskaintzerakoan

SEIN Produktua:
enpresetara egokitzen den produktua

SEIN Taldea irtenbide orokorrak, zehatzak eta eraginkorrak eskaintzeko prestatua dago, bezeroen eskaera guztiei erantzuna emateko.

Haietako bakoitzaren premietara egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna duen produktua. Industria merkatuko premia guztiei erantzuna ematen dien produktu integrala. Industria-horniduran erabiltzen diren baliabideak maximizatuko dituen produktua.

SEIN produktuak hornitzen dituen zerbitzuak berritzen eta ugaritzen ari dira etengabe-etengabe.

Produktu berean aukera ugari:

- **Mantentze lanetarako zerbitzua:** stock handia ziurtatua.
- **Kamban zerbitzua:** bereziki bezero handientzat.
- **Banaketa programatua:** behin edo 2 aldiz egunean.
- ***Just in time* zerbitzua:** produkzioko programazioak.
- **Aholkularitza tekniko komertziala.**
- **Igotze-elementuen azterketa eta mantentze lanetarako zerbitzua.**
- **Konponketa zerbitzua eta bermea.**
- **Makinan bertan egiten ditugun mekanizazio azterketak.**
- **Lankidetza administrazioaren kudeaketan** (atari informatikoak, baliokidetasunak...).
- **Tramitazioak.**

Albiste izango da

ARRASATE | GAUR EMANGO DUTE AZTERKETAREN BERRI

Azken 18 urteetan bikoiztu egin da euskararen kale erabilera

Gaur, astelehena, emango dituzte ezagutzera euskararen kale erabileraren neurketaren emaitzak, 18:00etan, kultura-etxean. Aurrekoetan baino azterketa sakonagoa egin du Udalak; izan ere, euskararen kale erabilerak azken 18 urteotan izandako bilakaera aztertu dute. Pozik azaldu dira emaitzarekin, erabilera bikoiztu egin da eta. Haurretan %104 hazi da erabilera; gazteetan, %233 eta helduetan, %154. Bestalde, Debagoieneko gainerako herrietan baino handiagoa izan da hazkundea. Hala ere, azken bost urteetan hazkundea motelagoa izan dela ere jasotzen du azterketak.

DEBAGOIENA | ARRATSALDEAN ATERA BEHAR DA

Bihar batuko dute baserri guneetan sortutako plastikoa

Bihar, martitzena batuko du Debagoieneko Landa Garapenerako elkarteak baserri inguruetan sortzen den plastikoa. Ibarreko herri guztietako baserri guneetan batuko dute, Elgetan izan ezik.

Ondorengo materiala batuko dute: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta negutegietako plastiko zuria. Plastikozko sokei dagokienez, horiek ez dituzte batuko.

Plastikoa martitzen arratsaldean atera beharko da, ohiko lekuetara eta Debagoieneko Landa Garapenerako elkartekoak hurrengo goizean pasatuko dira batzera.

BERGARA | 17:00ETATIK 19:00ETARA

Eguenean Jolasleku Ibiltariaren lehen hitzordua Munibe plazan

Bosgarren urtez jarraian Jolasleku Ibiltaria antolatu du Jardun euskara elkarteak. Haurrak guraso zein zaintzaileekin batzen diren herriko guneetara hurbiltzea da ekimenaren oinarria eta helburua, berriz, euskal kantu eta jolasen bidez, umeei jolas egiteko baliabide egokiak eskaintzea. Soka saltoan egingo dute, zapi, esku eta txapa jolasetan arituko dira eta baita abestu ere, besteak beste. Ekimena sei eta hamabi urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta euren ardura lau begiralek izango dute.

Lau saio izango dira, guztiak 17:00etatik 19:00etara. Lehenengoa eguenean izango da, Munibe plazan. Gainerako hirurak egubakoitzetan izango dira: ekainaren 3an, Espoloian; ekainaren 10ean, Fraiskozurin eta ekainaren 17an, Simon Arrieta plazan.

BERGARA | 19:00ETAN, SAN MARTIN PLAZAN

Lan segurtasuna aldarrikatzeko manifestazioa deitu dute eguenean

ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek manifestazioa deitu dute eguenerako. 19:00etan abiatuko da San Martin plazatik eta lan eskubidea, osasuna, eta segurtasuna aldarrikatuko dituzte, besteak beste. Debagoien osoko langileei egindako deialdia da, deitzaileen esanetan, "Debagoienean lan egiten dugun langileen egoera jasanezina" delako. Eman dituzten datuen arabera, Hego Euskal herrian 1.568 istripu larri egon dira 2003tik eta, horren ondorioz, 277 langile hil egin dira. Bestalde, diote eraikuntza dela arlorik kaltetuena: 10 istripuetatik 9 han gertatzen dira.

DEBAGOIENA | ELKARRETARATZEAK DEITU DITUZTE

Herri plataformek "apartheid politikoa" salatuko dute asteon

Plataformetako kideek azaldu dutenez, hilaren 25ean bi urte beteko dira azken udal hauteskundeak izan zirenetik eta "nahiz eta hauteskundeotan 20 hautetsi eskuratu ez da debagoiendarren hitza eta borondatea errespetatu". Hala, "apartheid politikoaren kontra eta eskubide zibil eta demokratikoen alde" hainbat mobilizazio deitu dituzte. Maiatzeko osoko bilkuretan mozioak aurkeztuko dituzte eta baita elkarretaratzeak egin ere: Antzuolan eguaztenean izango da, 19:00etan, udaletxe aurrean; Eskoriatzan, 19:30ean, plazan, eta Oñatin eguenean, 19:00etan, plazan. Bestalde, zapatuan eskualdeko manifestazioa deitu dute Oñatin, 19:00etan, plazatik abiatuta.

Hitzorduak

EGUZKIAREN ARRISKUEN GAINEKO HITZALDIA EGINGO DUTE EGUENEAN |
Eguraldi ona hasi dela eta, aholku batzuk emango ditu aditu batek

Loramendi Euskara Elkarteak hitzaldiak antolatu izan ditu astero. Datorren eguenean, hilaren 26an, udako denboraldiari begira interesgarria izan daitekeen berbaldi bat antolatu dute: eguzkiaren arriskuen gainekoa, alegia. Aretxabaletako udaletxe zaharrean izango da, 19:00etan.

Nerea Etxeandia estetizistak egingo du berbaldia. Azalaren ezaugarriak, azal motak, azalaren funtzioak... azalduko ditu, eta eguzkitara irten aurretik hartu beharreko neurri batzuk aholkatuko ditu. Izan ere, beti dator ondo horiek gogora ekartzea.

ANTZUOLA |

• Gaztetxoendako eskalada irteera Arrolaren eskutik
Eskalatzera joateko gaztetxoendako irteera antolatu du Arrola elkarteak hilaren 29an, domeka. Eginora (Araba) joango dira. Izena emateko, jo Arrolaren egoitzara bihar, martitzena, 19:00-20:00 ordutegian.

ARETXABALETA |

• Santa Ritaren eguna ospatuko dute agustindarrek
Gaur, astelehena, ospatuko dute Santa Ritaren eguna moja agustindarrek. Bi meza egingo dituzte komentuan, bata 11:00etan eta bestea 19:00etan.

ARRASATE |

• Udalekuetan izena emateko azken eguna, astelehena
Txatxilipurdiren udalekuetan izena emateko epea gaur, astelehena, bukatzen da. Interesatuok, deitu 943 77 17 39 edo 943 79 54 46 zenbakietara.

• Pagoetara irteera egingo du Emakume Txokoak
Pagoetara irteera egingo du Emakume Txokoak egubakoitzean, hilak 28. Izenematea, 943 79 41 39 telefonoan.

• Ukimenaren boterearen gaineko hitzaldia egingo dute
Etzi, eguaztena, egingo dute hitzaldi hori Emakume Txokoan, 16:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatu du.

• Mikel Aranburu apaizaren omenezko ospakizuna
Mikel Aranburu apaizak 50 urte daramatza jardunean. Hori eskertzeko, Uribarriko parrokiak eukaristia eta bazkaria antolatu ditu ekainaren 12rako. Izenematea zabalik dago Uribarriko eta San Andresko parrokietan.

BERGARA |

• ELA, ESK eta STEE-Eilas sindikatuen agerraldia
Manifestazioa deitu dute eguenerako, hilak 26. San Martin plazan batuko dira 19:00etan. Lan eskubidea, osasuna eta segurtasuna eskatuko dituzte.

DEBAGOIENA |

• UNEDen udako ikastaroetan izena emateko epea
UNED-Bergarako udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 4ra bitartean. Laugarren urtez antolatzen dituzte, eta aurten, 21 ikastaro daude aukeran, gizarte zientzien, osasunaren eta psikopedagogiaren arloetan. Matrikula egin daiteke Bergaran duten egoitzan, seminarioan, edo *www.uned.es/cabergara* webgunean. Argibideak, 943 76 90 33 telefonoan.

• Udako Euskal Unibertsitatean matrikula
Udako Euskal Unibertsitateak udako ikastaroak antolatu ditu. Aurten lehenengo aldiz Eibarren antolatu dituzte. Argibideak, honako webgunean: *ikastaroak.ueu.org*. Matrikulazio epea zabalik dago ekainaren 19ra arte.

• V. Juan San Martin ikerketa-beka deitu dute
Eibarko Udalak egiten du deialdia, zuzenbide eta filosofia arloko euskarazko ikerketak bultzatzeko, eta 9.000 euroko beka da. Argibideak Eibarko Herritarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1) eskatu behar dira. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 5etik urriaren 14ra bitartekoa izango da.

ESKORIATZA |

• Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso jaialdia egingo dute
Bertso jaialdia egingo dute etzi, eguaztena, Arizmendi ikastolako Almen gunean, 17:30ean. Luis Ezeiza eta Almen ikastetxeetan Ahozkotasuna eta Bertsolaritza egitasmoan parte hartu duten LHko ikasleek egingo dute jaialdia.

OÑATI |

• Haurren beldurren gaineko hitzaldia Elkar Hezin
Haurren beldurrak: zelan aurre egin? delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak eguenean, hilak 26, Elkar Hezi ikastetxeko liburutegian (Arantzazu kalea, 18), 19:00etan.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Eskerrik asko guztioi

Bergarako Mendekoste jaiak amaituta balorazio eta txaloak jasotzeko sasoia da. Horrela uste du Bergarako Udalak eta txaloak bidali dizkio Bergarako herriari: "Bergarako Udaleko Kultura zerbitzutik eskerrak eman nahi dizkizuegu Mendekoste jaietan kalera irten eta jaiarekin bat eginez, herria girotu duzuen guztioi. Era berean, gaineratu nahi dizuegu etorkizuneko jaiei nahiz kultura-eskaintzari buruz izan ditzakezuen iradokizunak eta proposamenak entzuteko prest izango gaituzuela".

• Antzuola kartelik inon ez da ageri

Txistuak dira hurrengo jasotakoak, errepideetako seinaleen gainean. Ormaiztegitik Zumarragarako saihesbidea inauguratu zutela eta, irakurle batek salatu nahi du "Antzuola izena ez dela errepideko seinaleetan inon agertzen. Zumarragaraino heltzen den errepide berrian "Bergara" agertzen dela eta, aldiz, Bergaratik Antzuolara joateko dagoen errepide bakarrean, "Antzuola" barik "Zumarraga" jartzen du. Eta... zer? Txikiak izateagatik ez gara *jakin beharrekoetan* sartzen?".

• Antolakuntza polita txalotu nahi dut

HUHEZIk jaia antolatu zuen egubakoitzean eta gure irakurle batek bidalitako e-posta jaso dugu "jaia antolatu duten ikasle taldearen lana txalotzen. Antolatzaileek ekitaldi asko antolatu zituzten. Giro oso polita sortu zen eta eskertzekoa da lan hori hartu zutenei. Goizean goizetik eta iluntzera arteko egitaraua prestatzeak ez du samurra izan behar, baina egin zuten eta beste guztiok gozatu genuen. Eskerrik asko eta segi horrela! Hurrengoan ere ondo aterako da".

Sarean harrapatuta

Alkohol kontrolak ibarrean. Nahikoa dira?

Ertzaintzak abiadura kontrol gehiago egingo ditu gaur hasi eta hilaren 29a arte Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan, neurri prebentibo bezala, gehiegizko abiaduran dabiltzanen kopurua murrizten saiatzeko; horren bitartez istripuak saihestu nahi dituzte, Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez. Alkohol kontrolen gaineko eztabaida egon da aste honetan *Goiena.net*-en. Hona iritzi batzuk:

GAUEAN BAKARRIK EZ, EGUERDIAN ERE JARRI

Nik ez dakit nahikoa diren edo ez, ez bainaiz begira egoten ea noiz jartzen duten kontrola eta noiz ez. Baina ingurukoei entzunda, behintzat, uste dut nahikoa jartzen dituztela. Hala ere, ez nituzke asteburu gauetan bakarrik jarriko, aste barruan ere jarriko nituzke, eguerdi partean. Ikusi besterik ez dago bazkal ondoren nola joaten diren batzuk lanera...

Rober / www.goiena.net

GAZTEAK BAINO OKERRAGOAK NAGUSIAK

Nik uste dut alkohol kontrolak gazteei bakarrik egiten dizkietela, eta gero nagusiagoak dira txarrenak! Gazteok baino gehiago edaten dute; bazkalondoan, txikiteoan...

Joxepo / www.goiena.net

UNEORO EGON BEHARKO LIRATEKE KONTROLAK

Ez dira nahikoa! Egunero eta uneoro egon beharko lirateke alkohol kontrolak. Autoa hartzen dugunok eta edaten ez dugunok segurtasun bat behar dugu edozein mozkor gure gainera ez etortzeko. Hala eta guztiz ere, kontrolak ez dira arazoaren soluzioa. Kontzientziazioa behar dugu, duda barik. Eta garbi izan alkohola eta autoa nahastea koktel arriskutsua dela.

Neu / www.goiena.net

GAZTEEK OKERRAGO GIDATZEN DUTE

Nahiz eta nagusiek autoa txikiteo edo bazkal osteko pattarra edan ondoren eta agian egoera okerragoan hartzen dutela uste dudan, behin autoa hartuta buru gehiagorekin ibiltzen direla uste dut. Ez dut uste, behintzat, gazte asko ibiltzen diren abiaduran edo gazteok bezain burugabe jokatzen dutenik. Bestela, alkoholaren ondoriozko istripuetan izaten diren hildako gehienen adina ikusi besterik ez dago...

Gazte bat / www.goiena.net

KONTZIENTZIAZIOA DA BEHARREZKOA

Kontrolak jartzea baino hobea da jendea kontzientziatzea. Kontrolekin jendea harrapatuko da edanda, baina ez da jendea konturatzen zer den ona eta zer ez. Jendeak berdin-berdin edango du eta kontrolak saihesten saiatuko dira; menditik joanez edo beste errepideren batetik...

Jendea kontzientziatuz gero, autoa hartu behar badu ez du edango. Baina, kontzientziatu ezean, alperrik da kontrolak jartzea.

Jardu / www.goiena.net

GOIZEAN GOIZ ERE JARRI KONTROLAK

Nik kontrol gutxiegi egoten direla uste dut. Ezin dugu lasai edan sagardo pixka bat afari batean, ezta pare bat garagardo hartu ere. Gaueko 12:00etan alkohol kontrolak jartzea ez dago ondo, pare bat garagardo edan dituztenak harrapatzen dituzte orduan. Eta goizean goiz etxera doazenak zer? Horiek okerrago joaten dira eta ez da kontrolik egoten.

Jon / www.goiena.net

www.goiena.net

Nahikoa alkohol kontrol egoten direla uste duzu Debagoienean?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo *www.goiena.net* webgunera

Halaxe erantzun digute

Jardun euskara elkarteak 15 urte egin dituela eta, zein da euskara elkarteen etorkizuna datozen urteetan ?

OLATZ OLASO |
JARDUN-EKO PRESIDENTEA

Aurrerantzean ere Jardunen egiteko nagusia bergararrak euskara erabiltzera animatzea izan beharko litzateke. Euskara dakigunok gure artean euskaraz egiteko bultza egin behar dugu eta ez dakitenentzat euskara zerbait erakargarri bezala aurkeztea lortu behar dugu.

ENERITZ GARRO |
AED-KO LEHENDAKARIORDEA

Eragileen bilgunea izan behar dugu eta herritarrak elkarteetara hurbiltzea zaila denez, euskara elkarteon lana geroz eta "profesionalagoa" da. Euskaldunon bilgune izateko eta herritarrengana iristeko formula berriak aurkitu beharko ditugu; esaterako, sortu diren kafe-antzokiak.

JASONE MENDIZABAL |
TOPAGUNEKO KUDEATZAILEA

Haur eta gazte programen garrantzia azpimarratuko nuke, hezkuntza ereduek ez baitute bermatuko gazteak euskalduntzea, eurentzat erakargarriak diren gaiak ez badira euskaraz eskaintzen. Zerbitzuetan profesionalizazioa eta herritarren parte-hartzea estrategikoak izango dira.

LARRAITZ IÑURRATEGI |
LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

Erronka nagusia herrian euskararen normalizazioa lortzea dugu eta horretarako gazteengan eragitea ezinbestekotzat jotzen dugu. Bestalde, etorkinen gaia ere lantzen hasi beharreko gaia dela uste dugu eta helburu nagusira heltzeko aurrerantzean ildo honi ere helduko diogu.

Egunkarietako harribitxiak

BERDINTASUN LEGEA ETA ALARDEAK
Berdintasun Legeak alarde tradizionalen desfilea debekatzen du. EAEko Arartekoak egin duen txostenaren arabera, emakumeei gizonen pare parte hartzen uzten ez dien alardeak eta udalen baimenak legearen aurkakoak dira. Txostenaren atal nagusiak jaso zituen atzo *Berria*k.

'Berria'
2005-05-22

Harian

«Emakumeen alde inoiz ez dute ezer egin, kontrakoa ez bada»

Eraginkortasunaren froga

Alarde tradizionala ezin dela debekatu dio Udalak, «ez duelako diskriminatzen»

2005, POBREZIAREKIN AMAITZEKO URTEA
Aberatsak eta txiroak ez dira bateraezinak. Globalizazioaren aldeko eta kontrako jarreren artean bada hirugarren bide bat. Horixe da Jeffrey Sachs-ek, munduko ekonomista garrantzitsuenetarikoak dioena. Azkeneko liburuan dio txirotasunarekin bukatu daitekeela 20 urtean. Horren harira, ekonomistari egindako elkarrizketa argitaratu zuen atzo *El Semanal* aldizkariak.

Lau proposamen egiten ditu pobreziarekin bukatzeko: batetik, herrialde aberatsen BPGaren %0,7a lortzea; bestetik, herrialde txiroen komertzioa bultzatu eta azpiegituretan laguntzea; hirugarren, kanpo zorra ezabatzea; eta azkenik, negutegi efektua eragiten duten gas emisioak egonkortzea.

'El Diario Vasco'
2005-05-22

Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2005-V-22

Egunkarietan irakurri dugu

'Deia'

BETOAREN ETA DUINTASUNAREN ARTEAN

PSE-PP-EHAK taldeek indarrak batu dituzte legebiltzarrerako presidentearen hautaketa oztopatzeko. Atutxaren irudiak balio die, boto gehien lortu zituen alderdiari euren nahia inposatzen saiatzeko, eta haren hautagaia kentzera behartzeko. Harrigarria izan daiteke hiru alderdi hain desberdinek helburu bera izatea; lehen ere gertatu izan da.

Editoriala
2005-05-22

'El Pais'

ATUTXAREN ERABAKIA

Ez da alderdi baten ordezkaria hautatzen, pertsona jakin bat baizik: jokaera alderdikoia bakarrik izango ez duena. Atutxak ezaugarri hori zeukan lehen aldiz hautatu zutenena, duela zortzi urte. Baina erakutsi du kontrako jokabidea, batik bat, azken lau urteetan, bere alderdiaren hobe beharrez araudia interpretatzeko aldaketak egitean.

Editoriala
2005-05-22

'Berria'

PASABIDE BAT IREKIRIK

Atutxa prest dago hautagaitza erretiratzeko. Alderdia, Imazen arabera, ez. Irtenbidea besteen esku utzi du EAJk. Nork izango du trebetasuna eta malgutasuna korapiloa askatzeko? Alderdiak blokeo honetan ematen ari diren irudia kezkagarria bada ere, kezkagarriagoa da mahai gainean dagoen bake aukerari oraindik serioski ez heltzea.

Pello Urzelai
2005-05-22

'El Mundo'

EB-K BAKARRIK LAGA DU EAJ

Bere nahiaren arabera egiten eta desegiten ohituta egonda, EAJk ez du orain azken hauteskundeetako emaitza irentsi. Horregatik dago hain tematuta. Nahiz eta horrek ere balio dion bere hautagaia estutzeko eta uko egitera behartzeko. Hori litzateke erabaki bakarra polemikarekin amaitzeko, EAJk makurtzeko beharrik izan gabe.

Editoriala
2005-05-22

Zorroztailea

Alarma hotsak

Antxoaren arrantza debekatzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzak Bruselari. «Berritze mugen azpitik» dago biomasa. Behin betiko desagertzeko arriskuan, alegia. Arrain heldurik ia ez dute antzeman Aztiko ikerlariek Bizkaiko Golkoan, eta kumeak eta arrautzak eskas dira. Jaurlaritzak, beraz, antxoa suspertu arte Frantziako ontziak ere portuan lotuta egotea nahi du.

'Berria' | 2005-05-21

Juan Luis Azkarate

Hemen antxoarik ez eta apur bat hegoalderantz, sikatea dela eta, urik ez. Hau katastrofea! Zorigaitz ziklikoek jota bizi gara, baina ez dugu sekula ikasiko. Ez da lehenengo aldia arrantzaleek horrelako egoera bizi dutela, baina gizakiok harrapari asegaitzak garenez, horra hor gure patua: dagoenean bonbon, eta ez dagoenean egon.

Arcachon dela, frantziarrak direla, pelagikoak direla, Gobernuek ez dituztela arrantzaleak behar bezala defenditzen…hor datza arazoaren gakoa, ala sakonagoa da? Espeziea berreskuratzea lortzen bada, berriro itsasoa xake taula bailitz an zatituko dugu, gatzez marraztutako mugak jarriko dizkiogu ozeanoari, 'honaino niretzat eta hortik aurrera zuretzat' esan, eta arazoa konponduta omen. Hurrengora arte.

Eta beste hainbeste gertatu daiteke urarekin. Miranda de Ebrotik behera, eta salbuespenak salbuespen, lurralde sikua dugu. Eta ez du hutsik egiten, hiru edo lau urtean behin, aurten lez, alarma hotsak: lehortea! Baina alarmak mutu irauten duen bitartean, Norvegian izango bagina bezala ura xahutu.

Azkeneko urte hauetan, Huelvako kostaldean udatiar ibili naiz eta, urtero-urtero, gero eta urbanizazio eta golf zelai gehiago, auto ilara luzeagoak... ikustean, neure buruari, izerdi patsetan, galdera bera egiten diot: klima ia saharar honekin (azken bost udetan, behin bakarrik ikusi dut euria egiten) nondik ateratzen dute hainbeste ur? Ez gara gu katastrofistak jartzen hasiko; baina kontuz, Ondarroan antxoarik ez eta baietz Huelvako ganbak hurren?

"Espeziea berreskuratzea lortzen bada, berriz itsasoa xake taula bailitzan zatituko dugu (...) eta arazoa konponduta omen"

"Ez gara gu katastrofista jarriko; baina kontuz, Ondarroan antxoarik ez eta baietz Huelvako ganbak hurren?"

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Ion Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Lortutako garaipenarekin, UDA preferente mailan egongo da hurrengo denboraldian | 14
• Gipuzkoa osoko haurrak aritu ziren bote-luzea jokoan Oñatin | 21

Xibak, Euskal jokoen topaguneak, Aretxabaletara 11 talde ekarri zituen zapatuan | 20

ATHLETIC
0-2
NUMANTZIA

Athletic | Arantzubia, Iraola, Murillo, Lakruz (Solabarrieta 52. min.), Del Horno, Gurpegi, Orbaiz, Tiko, Ezkerro, Arriaga (Guerrero 52. min.) eta Llorente.

Numantzia | Juanma, Juanpa, Pignol, Otxoa, Tarantino (Graff 77. min.), Palacios, Velasco, Juanlu, Tevenet, Pablo Sanz (Antonio 73. min.) eta Merino (Ros 82. min.).

Golak: 0-1 Merino (8. minutuan). 0-2 Tevenet (88. minutuan).

Epailea | Dauden Ibañez. Joko zikina txartel hori bidez moztu zuen. Numantziaren alde adierazitako penaltia justua izan zen, ogitarteko bat egin zioten eta Numantziako jokalariari.

Bestelakoak | Zale gutxi egon zen San Mamesen. Soriatik etorritako zale batzuk egon ziren eta taldeak garaipena eurei eskaini zien. Oso txalotuak izan ziren Merino eta Tarantino jokalariak. Besteak beste, Del Hornoren, Ezkerreroren eta Valverderen azken partidua izan zen.

Bikain

Orbaiz
Beste behin ere nafarra izan zen taldeko onena. Egiten dituen paseak, presioa eta aurrealdean sortzen dituen aukerak beharrezkoak ditu Athleticek. Ondo etorria da kontratu luzaketa.

Kaskar

Juanma
Bikain egon zen Numantziako atezaina; hian ondo, etxekoendako egoera erabat kaskartu zuela. Bigarren zatian egindako geldituei esker bere taldearen atea hutsean laga zuen.

Esandakoak

"Lehen zatian aurrealdean abiadura falta izan dugu, baina bigarrenean irabazteko aukerak sortu ditugu".

ERNESTO VALVERDE | ENTRENATZAILEA

"Pozik nago partidu serioa egin dugulako, baina, aldi berean, penaz ere bai Athletic UEFAtik aldendu delako".

TARANTINO | NUMANTZIAKO JOKALARIA

ARGAZKI PRESS

Denboraldi ona burutu du Valverdek Athleticen. Azkeneko partidua zuen atzokoa eta hasieran behintzat pozik zirudien.

ATHLETIC | SAN MAMES AGURTZEKO MODURIK TXARRENA IZAN ZEN HUTS ETA BIKOA

San Mames porrotarekin agurtu zuen Athleticek

Jon Unamuno

Partidu bakarraren faltan, hurrengo urteari begira jarrita dago taldea. Mendilibarrekin taldea eraberrituko da eta taktika aldetik ere aldaketak ikusiko dira

Agur tristea eman zien taldeak San Mameseko zaleei. Sailkapeneko azkeneko taldea izan zen bisitaria, Numantzia. Garaipena lortzea erraza bazirudien ere, denboraldi honetan behin baino gehiagotan gertatu den moduan, halako taldeen kontra jokatzea kosta egin zitzaion talde zurigorriari.

Ingalaterratik Athleticera etorri zen Merinok sartu zuen lehenengo gola. Defentsaren erditik sartu zen eta jaurtiketa sarera joan zen. Lehen zatiak ez zuen historia gehiago izan. Atsedenaldian aldageletan norbaitek ukabilkada eman zuen mahaian eta Athleticen jokoa erabat aldatu zen. Berdintzeko aukera paregabeak izan zituen, baina atera joan ziren baloiak gelditzeko hor agertu zen Juanma. Izugarrizko geldituak egin zizkion Del Horno, Solabarrieta edo Orbaizi. Amaieran, Tevenetek huts eta bikoa sartu zuen penaltiz.

AGURREN PARTIDUA

San Mamesen kolore zuri-gorriak defendatzen azkeneko partidua izan zuten protagonista batzuk. Valverdek denboraldi oso ona egin du entrenatzaile modura eta txalo artean agurtu zuten zaleek. Del Horno eta Ezkerreron kasua bestelakoa da. Gallartakoa Chelsiera doala dirudi eta Ezkerro, berriz, Bartzelonara. Besterik ezean, Abrahamovichen dirua ondo etorriko zaio Athletici.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• JOKALARIEN SALTSA MALTSARI BURUZ ZER DERITZOZU?

CARLOS ETA MATEO | ESKORIATZA ETA ARETXABALETA

"Ondo iruditzen zaigu jokalariak saltzea, baina etxekoak mantentzeko"

"Ondo iruditzen zaigu jokalariak saltzea, baina etxekoak mantentzeko. Del Hornoren diruarekin jokalari garrantzitsuak hemen gelditzea suposatuko badu, ongi etorria dadila salmenta".

GATZA | GATZAGA

"Fitxaketak egin eta ditugunak zaindu behar dira"

"Diruarekin fitxaketak egin eta ditugunak zaindu behar dira. Ondo dago taldean mugimendua egotea", adierazi zuen Gatzak.

OIER ETA ITSASO | BERGARA

"Pena da Del Horno Athleticetik joatea, baina onuragarria izango da"

"Pena da Del Horno Athleticetik joatea, baina onuragarria izango da. Diru horrekin taldeko jokalari garrantzitsuak eutsiko ditu eta, gainera, harrobiari laguntasuna emango dio".

AMAIA, ASIER, ANDONI, JOSEBA ETA UNAI | BERGARA

"Athleticeko jokalariek taldean jarraitu beharko lukete"

"Athleticeko jokalariak taldean jarraitu beharko lukete. Euskaldun jokalari gutxi daude eta, gainera, etxekoa izanda lotu egin beharko litzake. Diruarekin fitxaketak egin beharko lituzke Athleticeko zuzendaritzak".

MANOLO ETA AMAIA | BERGARA

"Chelsieren diruarekin, Athleticeko zutabeak eutsiko dira"

"Chelsieren diruarekin, Athleticeko zutabeak eutsiko dira, Orbaiz esate baterako. Diru horrekin gauza asko egin daitezke eta, orokorrean, pozik gaude egongo diren aldaketekin. Lakruzek adibidez alde egin beharko luke".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Real Madril-At. Madril	0-0
Osasuna-Espanyol	1-1
Malaga-Racing	2-0
Albacete-Reala	2-2
Getafe-Sevilla	0-0
Levante-Valentzia	0-0
Betis-Zaragoza	3-2
Deportivo-Mallorca	0-3
Bartzelona-Vila-real	3-3
Athletic-Numantzia	0-2

HURRENGOAK

Racing-Albacete
Espanyol-Athletic
Reala-Bartzelona
Mallorca-Betis
Numantzia-Deportivo
Zaragoza-Real Madril
At. Madril-Getafe
Vila-real-Levante
Valentzia-Osasuna
Sevilla-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**83**	37	25	4	8	73	29
2.**Real Madril**	**77**	37	24	8	5	68	31
3.**Vila-real**	**62**	37	17	9	11	65	35
4.**Betis**	**61**	37	16	8	13	61	49
5.**Sevilla**	**60**	37	17	11	9	44	39
6.**Espanyol**	**58**	37	16	11	10	52	46
7.**Valentzia**	**55**	37	13	8	16	52	39
8.**Athletic**	**51**	37	14	14	9	59	52
9.**Zaragoza**	**50**	37	14	15	8	51	54
10.**Deportivo**	**50**	37	12	11	14	45	49
11. **At. Madril**	**49**	37	13	14	10	38	32
12.**Malaga**	**48**	37	14	17	6	38	48
13.**Getafe**	**46**	37	12	15	10	36	44
14.**Reala**	**46**	37	13	17	7	47	56
15.**Osasuna**	**46**	37	12	15	10	46	64
16.**Racing**	**41**	37	11	18	8	40	58
17.**Mallorca**	**38**	37	10	19	8	41	62
18.**Levante**	**37**	37	9	18	10	38	54
19.**Albacete**	**28**	37	6	21	10	33	55
20.**Numantzia**	**28**	37	6	21	10	29	60

Kiniela

KINIELA

1. Bartzelona-Vila-real	X
2. Albacete-Reala	X
3. Malaga-Racing	1
4. Getafe-Sevilla	X
5. Real Madril-At. Madril	X
6. Betis-Zaragoza	1
7. Deportivo-Mallorca	2
8. Athletic-Numantzia	2
9. Osasuna-Espanyol	X
10. Levante-Valentzia	X
11. Tenerife-Cadiz	1
12. Valladolid-Malaga B	1
13. Elx-Salamanca	2
14. Almeria-Alaves	2

Reala

Azken minutuan hobetu zuen Realak aurreko asteetako itxura txarra

Lehen zati kaskar baten ondoren, bigarren zati txukuna jokatu zuten Amorrorturen mutilek

Jokin Etxebarria

Bi aste zeramatzaten Realaren ingurukoek aurreko asteetako itxura hobetu beharra zegoela esaten. Bi astetan esan eta bi astetan huts egin. Eta atzo, Jainkoak horrela nahi izan zuelako edo, denbora pasatuta Realak aspaldian lortzen duen puntu bakarra eskuratu zuen. Jainkoak, edo Amorrortuk –azken aldian ez bezala– aldaketekin asmatu zuelako, edota, Realak berdinketa lortu eta gero, marrazaina fin ibili zelako Albacetekoen hirugarren gola bertan behera uzten.

Lehen zatiko jokoak aurreko bi asteetakoa ematen zuen. Baloi jabetza alde eduki bai, baina baloi jabetzak ez du ezertarako balio areara ezin heldu ibiltzen bazara. Gainera, bi gol jasotzen badituzu, jadanik bigarren mailan dagoen talde batengandik, lotsagarritasun puntura heltzeko gutxi falta izaten da. Denbora askoan, Albacete-Reala beharrean joan den asteko Levante-Bartzelona ikusten nenbilela pentsatu nuen. Baloia eduki bai, baina zelai erditik aurrera ezin pasa.

Agian zer ikusia izango zuen Mladenovicek horretan. 45 minututan ez dakit baloirik ukitu zuen. Aldatu zuten arte jokoan ibili zela ohartzea zail egin zen. Horrela erakutsi nahi baldin badu Realeko jokalari izan daitekeela, eta datorren urtean taldean gelditu nahi duela, nik uste, jai daukala; baina batek daki.

BERPIZKUNDEA

Bigarren zatia hastearekin gauzak zeharo aldatu ziren. Hobe esanda, atsedenaldira joatearekin batera. Bi aldaketa egin zituen Amorrortuk. Eta asmatu egin zuen. Barkero atzera pasatuta, Xabi Prieto ateratzeko aukera izan zuen, eta donostiarrak lehenengo 25 minutuetan erakutsi zuen jokoa benetan bikaina izan zen. Mingo goitik behera menperatu zuen, eskuin hegalaren jabe eginez, eta Realak, partiduan lehenengoz, nondik eraso egin asmatu zuen. Aukerak bata bestearen atzetik etortzen hasi ziren, baina beste behingoz talde txuri-urdinak gola sartzeko orduan dituen gabeziak erakutsi zituen. Prieto itzaltzen hasi, eta De Paulak denboraldiko hirugarren gola sartzea, biak bat izan ziren. Realak ez zuen etsi eta, zortez, defentsa baten aldaratzea ederki aprobetxatu zuen Urangak gola sartzeko. Hala ere, ezin sufritu gabe gelditu; eskerrak marrazaina fin ibili zen Albaceteren gola bertan behera utziz.

ALBACETE
2-2
REALA

Albacete | Gaspercic, Santi, Agus, Mingo, Peña, Gaspar, Viaud, Ivan Diaz (A. Cano 62. min.), Pacheco, Francisco (Pablo 79. min.) eta Mikel (Gato 66. min.).

Reala | Riesgo, Zubiaurre, Labaka, Brechet, Karpin, Barkero, Rossato (Xabi Prieto 45. min.), Mladenovic (Mikel Alonso 45. min.), Aranburu (Agirretxe 85. min.), Uranga eta De Paula.

Golak: 1-0 Pacheco (8. min.).2-0 Pacheco (32. min.). 2-1 De Paula (81. min.). 2-2 Uranga (91. min.)

Epailea: Rubinos Perez. Ondo.

Bikain

XABI PRIETO
Aspaldian jokatu gabe zegoen eskuin hegalekoa. Amorrortuk atzo emandako minutuak ederki aprobetxatu zituen, eta eskuin hegalaren jabe egin zen bigarren zatian.

Kaskar

MLADENOVIC
Datorren urtean Realean gelditzeko, jokoa erakutsi beharra zeukala esaten zen. Nahiz eta minutuak eman, ez du gehiegi erakutsi oraindik.

Mladenovic serbiarrak ez zuen 45 minututan baloirik ukitu

Xabi Prietok Mingo goitik behera menperatu zuen eta bere hegalaren jabe egin zen

AINTZANE AGIRRE

Aukerak area batean eta bestean izan ziren bigarren zatiaren hasieran.

Azken minutuan, penaltiz berdindu zuen Ordiziak

MONDRA
2-2
ORDIZIA

Mondra | Ander, Torres (Markel 51. min.), Barbarias (Arkaitz 73. min.), Merkader, Argider (Laspiur 59. min.), Ruben, Loiti, Lopez, Illart (Maikel 59. min.), Keixi eta Garmendia (Asier 51. min.).

Ordizia | Egoitz, Irastorza (Eneko 75. min.), Crespo (Edorta 64. min.), Odriozola (Julen 64. min.), Iñigo (Eguren 83. min.), Tello, Arkaitz, Koldo, Gorka, Gonzalez eta Aitzol.

Golak: 0-1 Irastorza. 1-1 Lopez. 1-2 Keixi. 2-2 Gonzalez.

Epailea: Ayesa jauna. Nahiko gaizki ibili zen.

Jokin Etxebarria

Gaizki hasten dena, gaizki bukatzen dela esan ohi da. Emaitza ikusita, hirugarrenaren aurka berdinketa bat lortzea ez dagoela gaizki esan daiteke. Baina zapatuan, Mondrak gehiago merezi izan zuen, batez ere bigarren zatia nolakoa izan zen ikusita.

Hasi eta berehala jaso zuten zaplaztekoa mondragoetarrek. Minutua pasa baino lehenago sartu zuten gola kanpokoek. Hortik aurrera, baina, etxekoak baloiaren jabe egiten hasi ziren, eta baita aukeraren bat sortzen ere. Hala ere, eta nahiz eta ordiziarrek baloia gehiegi ukitu ez, gora heltzen ziren bakoitzean, arrisku usaina heltzen zen Atxabalpera, zegoen haize handiak lagunduta. Gutxika-gutxika, kanpokoak nagusitzen hasi ziren zelaian, baina orduan etorri ziren Mondrakoen aukera onenak, eta baita Lopezen gola ere. Aipatzekoa zapatuan Lopezek jokatutako partidua, bikaina.

MONDRA NAGUSI

Bigarren zatiaren hasiera zorabiatzeko modukoa izan zen. Aukerak batean eta bestean, nahiz eta argienak etxekoek izan, bi aldiz bota zuten eta baloia zutoinera. Etxekoak nagusitzen hasi ziren, eta euren lanak fruitua eman zuen Keixik faltaz sartutako gol batekin. Baina azken minutuan, penalti tonto batean, berdinketa lortu zuten ordiziarrek.

Irabazten hasi, eta gero, ezin markagailuari eutsi

TOURING
4-1
BERGARA

Touring | Salinas (Jokin 45. min.), Martinez, Joseba, Araneta, Dorronsoro (Crespo 82. min.), Arrieta, Ekaitz, Juan (Raul 65. min.), Aitor (Egoitz 52. min.), Eneko eta Maritxalar (Munarriz 65. min.).

Bergara | Sesma, Elkoroberezibar (Medina 59. min.), Arana (Mikel 65. min.), Aritz, Arazkonaga, U. Agirre (Lete 74. min.), Otero, Garin (Zankada 77. min.), Imanol, San Vicente eta Martin (Alejandro 70. min.).

Golak: 0-1 Martin. 1-1 Aitor. 2-1 Aitor. 3-1 Egoitz. 4-1 Egoitz.

Epailea: Asier Blanco. Ondo adierazi zituen jokaldi eztabaidagarriak.

A.G.

Betiko kontua gertatu zen beste behin ere. Lehenengo ordu erdian jaun eta jabe izan ziren Bergarakoak. Gola ere iritsi zen Martinen eskutik. Oterok eta Garinek bigarrena sartzeko aukera izan zuten, baina baloiak ez zuen sartzerik nahi izan.

KORNER BATEAN BERRIRO

Korner batean sartu zuten berdinketaren gola etxekoek. Azkenaldi honetan askotan jasotzen ditu modu berean golak Bergarak. Ondoren bigarrena iritsiko zen. Bergara berdinketa lortzen saiatu zen, baina, horren ordez, beste bi gol jaso zituen partidu amaiera aldean.

AINTZANE AGIRRE

Mailari eutsi ondoren, intentsitaterik gabe jokatu zuten etxekoek.

Intentsitaterik gabe aritu zen Aloña partidu guztian

ALOÑA MENDI
0-1
REAL UNION

Aloña Mendi | Gil, Ferreira, Igartua, Losada (Iñigo Arregi, 58. min.), Luelmo (Lopez, 27. min.), Barrena, Astola (Garai, 53. min.), Aramendi (Olalde, 25. min.), Moiua, Garmendia eta Astigarraga (Albizu, 58. min).

Real Union | Kortajarena, Berasaluze, Arregi (Koldo, 68. min.), Apaolaza (Madariaga, 45. min.), Ibañez, Del Rey, Lasaga, Jimenez, Lekuona, Torres (Unai Gil, 68. min.) eta Zugarramurdi.

Golak: 0-1 Torres.

Epailea: Imanol Matas. Arazorik gabe.

Jasone Zabala

Ez genuen batere partidu polita ikusi atzo, domeka, Azkoagainen. Ez batzuek ezta besteek ere, ez zuten ezer jokoan, eta hori nabaritu egin zen. Lehen zatian, bi taldeak gogotsu atera ziren, eta aukerak batek zein besteak izan zituen. Aloña zenbait alditan igo zen erasoan bi hegaletatik, baina ez zuten golik sartu. Bigarren zatia hasi eta berehala, Real Unionek sartu zuen gola, Torresen eskutik, eta handik aurrera kanpotarrek ideiak argiago izan zituzten; beraien jokoa oñatiarrena baino zerbait hobeagoa izan zen. Etxekoak, joko nahasia egiten ari ziren, eta jokaldiak ezin zituzten landu.

OHIKOAK EZ DIRENEK JOKATU ZUTEN

Hala eta guztiz ere, Oruetak aldaketa dezente egin zituen eta hori zelaiaren gainean nabaritu egin zen, hamaikakoan ohikoak ez direnek jokatu baitzuten. Azken txanpan, izan zituzten aukerak etxekoek berdinketaren gola sartzeko, baina ez zuten lortu, eta hiru puntuak Irun aldera joan ziren.

UDAk datorren urtean ere Preferenten jokatuko du

UDA
2-0
OIARTZUN

UDA | Eriz, Sanchez, Erostarbe, Armendariz, Unamuno (Iker 77. min.), Saenz, Uribetxebarria (Rodriguez 67. min.), Igartua (Arana 73. min.), Arriaga (Azkue 64. min.), Eriko (Orueta 53. min.) eta Imanol.

Oiartzun | Bengoetxea, Uranga, Pedro, Maritxalar, Azpeitia, Brun, Zipitria, Pikabea (Etxebeste 62. min.), Salaberria (Pardo 53. min.), Fernandez eta Larrea (Elizegi 62. min.).

Golak: 1-0 Arriaga. 2-0 Azkue.

Epailea: Morales jauna. Nahiko ondo aritu zen.

Jokin Etxebarria

Aitor Heriz, UDAko jokalari ohiaren oroimenez minutuko isilunearekin hasi zen UDA eta Oiartzunen arteko partidua.

Aretxabaletakoek puntu bakarra nahikoa zuten mailari eusteko eta helburu hori lortzeko aurkari egokiena etorri zen Ibarrara: Oiartzun, sailkapeneko azkena.

Hala ere, UDAk lehen zatian ez zuen erakutsi Oiartzun baino gehiago zenik. Egia esan, biak arratsalde pasa etorri zirela ematen zuen, ordu erdia pasa arte ez zuten eta atera baloirik bota.

Bigarren zatia hobea izan zen. Orueta zelaira irtetea taldeak behar zuen pizgarria izan zen.

Mailari eutsi dio UDAk.

Ukitu zuen lehen baloian penaltia egin zioten, eta bigarren gola ere, berak egindako jokaldi bikain baten amaiera izan zen.

• SENIOR MAILAKO NESKAK (IGOERA FASEA)

JOKIN ETXEBARRIA

ALMEN UDA 1 - MONDRA 3

Denboraldia amaitzeko partidu bikaina zegoen ikusgai Almenen zapatuan. Mondraren aurkako derbya. Partidua polita izan zen. Lehen zatian Mondra nagusi izan zen, eta markagailuan aurreratzea lortu zuen. Bigarren zatian, baina, etxekoak gora etorri ziren, partiduaren bila, baina zelaiaren jabe egin zirenean, eta Mondra gaizkien jokatzen zebilenean, Zabaloren neskek bi gol sartu zituzten eta partidua erabakita utzi zuten, nahiz eta amaieran Almenek gol bat sartu ahal izan zuen.

• GAZTEAK LEHEN MAILA

Bergararrak oso nagusi izan ziren partidu guztian zehar

MONDRA
1-4
BERGARA

Jokin Etxebarria

Gehiago nor den argi eta garbi utzi zuten zapatuan Mondra eta Bergararen arteko derbyan. Ez zen kolorerik izan bi taldeen artean. Zerbaitegatik igo dira mailaz Bergarako gazteak eta Mondrakoak, berriz, jaitsi.

Lau gol sartu zituzten Bergararrek, baina gehiago ere izan zitezkeen. Mondrak jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuen denbora askoan, eta gol gehiegi ez jasotzeko jokatu zuten. Defentsan bakarrik jarri zituzten indarrak, eta emaitza ez zen hain txarra izan. Galdu egin zuten, baina kontuan izanda joaneko partiduan bergararrek 16 sartu zizkietela, pozik bukatzeko moduan zeuden arrasatearrak. Eta benetan pozik atezaina. Ez da egunero ikusten atezainak bi penalti partidu berean gelditzea, baina Atxabalpera gerturatutakoek zapatuan hori ikusteko parada izan zuten.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

Idiazabaldik Antzuolaraino etorri zen liga txapelketa

ANTZUOLA
3-2
EKINTZA

Asteleheneko Goienkaria

Denboraldi bikaina borobildu zuten Antzuolako gazteek. Ekintzaren aurkako finala irabazi egin zuten Idiazabalen.

Partidua parekatua izan zen, nahiz eta urduri hasi zuten antzuolarrek lehen zatia. Baina lehen gola Antzuolak sartu zuen; golegilea Unai izan zen. Antzuolak aurrera begira jarraitu zuen, baina Ekintzak berdinketaren gola lortu zuen; horrela amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatian, berdin atera ziren bi taldeak, irabazteko nahiarekin, baina Ekintza aurreratu zen markagailuan; partidua amaitzeko 12 minuturen faltan, ordea, bina berdindu zuen Antzuolak, Aitor Godoyren gol bati esker. Horrela amaitu zen partidua, eta luzapenera joan ziren. Luzapeneko 10. minutuan, Unaik sartu zuen hirugarren gola eta modu horretan liga Antzuolara etorri zen.

• OHOREZKO GAZTEAK

Partidu txar batean ezin izan zuten golik sartu UDAkoek

UDA
0-1
UROLA

Asteleheneko Goienkaria

Partidu txarra jokatu zuten bi taldeek Ibarrako zelaian. Etxeko taldeak, lesionatu ugari zituen eta beheko mailako jokalariekin jokatu behar izan zuen.

Lehen zatian ez zuen bi taldeetako inor agindu. Joko nahasian aritu ziren. Urolakoek sartu zuten lehen zatian partiduko gol bakarra, UDAko atzelari baten eta atezainaren arteko gaizki ulertu baten ondorioz; hala eta guztiz ere, UDAk borrokan jarraitu zuen, baina golaren ondoren kanpotarrak hasi ziren agintzen.

Bigarren zatian, UDAk nahi bai, baina ezin izan zuen gola sartu, eta Urola, zeukan errenta mantentzen saiatu zen, eta baita lortu ere.

Datorren astean, denboraldiko azken partidua izango dute Irungo Mariño taldearen aurka; ea denboraldia garaipen batekin amaitzen duten.

Ikusitakoak ikusita — Jasone Zabala

MATEMATIKOKI, HIRU TALDE GOIAN, ETA BAT BEHEAN

Denboraldia amaitzeko jardunaldi baten faltan, urteko balantzea egiteko garaia da. Mondra beti mantendu izan da goiko postuetan, beheko mamuak alde batera utziz. Aloñak eta UDAk, ederki sufrituta izan bada ere, larri ibili ondoren txapelketako azken txanpan indarrak atera dituzte eta sailkapenean gora egin dute, eta ederki gainera. Bergara, aldiz, zuloan hasieratik, eta hortxe jarraitu du amaierara arte. Datorren urtean beraz, hiru talde preferente mailan.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**80**	37
2. **EHU**	**78**	37
3. **Ordizia**	**65**	37
4. **Zarautz**	**64**	37
5. **Real Union**	**62**	37
6. **Trintxerpe**	**51**	37
7. **Mondra**	**50**	37
8. **Zestoa**	**49**	37
9. **Pasaia**	**48**	37
10. **Aloña Mendi**	**48**	37
11. **Touring**	**47**	37
12. **UDA**	**47**	37
13. **Mutriku**	**47**	37
14. **Hondarribia**	**44**	37
15. **Anaitasuna**	**44**	37
16. **Orioko**	**43**	37
17. **Beti Gazte**	**41**	37
18. **Urola**	**39**	37
19. **Bergara**	**36**	37
20. **Oiartzun**	**24**	37

Emaitzak	
Orioko-EHU	0-1
Beti Gazte-Urola	1-0
Mondra-Ordizia	2-2
Pasaia-Mutriku	1-1
UDA-Oiartzun	2-0
Touring-Bergara	4-1
Zarautz-Hondarribia	2-1
Zestoa-Trintxerpe	1-0
Aloña-Real Union	0-1
Tolosa-Anaitasuna	0-0

Hurrengoak
Urola-Orioko
Ordizia-Beti Gazte
Mutriku-Mondra
Oiartzun-Pasaia
Bergara-UDA
Hondarribia-Touring
Trintxerpe-Zarautz
Real Union-Zestoa
Anaitasuna-AloñaMendi
EHU-Tolosa

OHOREZKO GAZTEAK

Sailkapena	Punt.	J.
1. **Antiguoko**	**77**	33
2. **Zumaiako**	**63**	33
3. **Zarautz**	**62**	33
4. **Union Txiki**	**61**	33
5. **Sto. Lizeoa**	**60**	33
6. **Anaitasuna**	**53**	33
7. **Ordizia**	**51**	33
8. **Eibartarrak**	**51**	33
9. **Hondarribia**	**50**	33
10. **UDA**	**44**	33
11. **Mondra**	**40**	33
12. **Martutene**	**40**	33
13. **Urola**	**38**	33
14. **Mariño**	**36**	33
15. **Aldapetarrak**	**36**	33
16. **Aurrera**	**34**	33
17. **Euskalduna**	**21**	33
18. **Dunboa-Eguzki21**		33

Emaitzak	
Ordiza-Zumaiako	0-5
UDA-Urola	0-1
Antiguoko-Mariño	3-1
Aurrera-Mondra	0-1
Martutene-Eibarta.	4-1
Union Txiki-Aldapet.	0-0
Zarautz-Hondarribia	2-0
Dunboa-Sto. Lizeoa	3-3
Anait.-Euskalduna	5-1

Hurrengoak
Urola-Ordiza
Mariño-UDA
Mondra-Antiguoko
Eibartarrak-Aurrera
Aldapetarrak-Martutene
Hondarribia-Union Txiki
Sto. Lizeoa-Zarautz
Euskalduna-Dunboa
Zumaiako-Anaitasuna

BESTELAKOAK

GAZTEEN EUSKADIKO LIGA (KOPA)

Danok Bat-Aloña Mendi	3-1

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Arrasate-Bergara	1-4
Urola-UDA-Arizmendi	1-0

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Antzuola-Ekintza	3-2
Urnieta-Bergara	3-0

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Aloña Mendi-Lagun Onak	0-3
Vasconia-Bergara	3-0
Arrasate-Antiguoko	2-5

LEHEN MAILAKO KADETEAK

UDA Arizmendi-San Patricio	3-0

BIGARREN MAILAKO KADETEAK

Lengokoak-Bergara	3-3
Antzuola-Beraun	3-1

EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)

Reala-Aloña Mendi	13-0
Almen UDA-Mondra	1-3
Bergara-Ostadar	3-1

EMAKUMEEN F-8 LIGA

Bergara-Zumaiako	7-4

INFANTIL OHOREZKO MAILA

Tolosa-UDA Arizmendi	1-3

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)

Arrasate-Billabona	1-1

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)

Ordizia-Aloña Mendi	1-6

ALEBINAK (2. FASEA)

UDA-Antiguoko	1-2
Bergara-Sp.Herrera	4-3
Aloña Mendi-Touring	5-5
Arrasate-Oiartzun	2-2

Labur

Bergarako lehen mailako gazteak mailaz igo dira denboraldi honetan

David Lopez de Abetxukok entrenatzen duen taldeak denboraldi bikaina egin ondoren, ohorezko gazte mailara igotzea lortu du. Duela bi aste, Lengokoak taldearen aurka galdu zuen –galtzen zuen bigarrena– zazpi hilabete porrotik jaso gabe egon ondoren. Zorionak!

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2005eko maiatzaren 23a

OMENALDIA

AINTZANE AGIRRE

Alkatea, zinegotziak, presidentea, entrenatzailea, jokalariak eta, nola ez, zaleak Udaletxe azpian. Ondoren, kalean zerbait hartu eta bazkaltzera joan ziren gehienak.

Eskoriatzako areto futbol taldeari omenaldia Udalak

Euskal ligara igo ostean, bigarren gelditu eta lehen nazionalera egin du jauzi

Jon Unamuno

Amaitu dute denboraldia areto futboleko mutilek, eta bikain amaitu gainera. Liga irabaztea ez dute lortu, baina bigarren postua arrakasta bat dela aitortu beharra dago.

Aurreko denboraldian Euskal ligara egin zuten saltoa eta denboraldi bakarrean, helburua mailari eustea bazen ere, beste jauzi bat ematea lortu dute: lehen nazionalera igotzea. Futbolarekin alderatzen badugu, 2B mailarekin konparatuko genuke; benetan izugarrizko maila. Taldeko jokalari gehienak herrikoak dira bi aretxabaletar eta hiru arrasatear izan ezik, eta Debagoienean areto futbolaren icebergaren punta bilakatu da.

OPARIEN BANAKETA

Herriari eman dion poza dela eta, Udalak omenalditxoa eskaini zion taldeari atzokoan. Jokalari bakoitzari plaka bana eman zion alkateak Udalaren izenean. Ondoren, luntxa izan zuten taldearen ordezkari guztiek (presidentea, entrenatzailea eta jokalariak).

Esker hitzak nagusitu ziren bertaratutakoen aldetik. Udaletik taldeak egin duen lan txukunagatik; eta, kirol elkartetik, Udalak areto futbolari eman dion laguntzagatik. Hau dela eta, Manolo Muñoz presidenteak taldeko kamiseta oparitu zion Juan Karlos Bengoa alkateari.

Erronka polita dute Iñaki Corralen mutilek hurrengo urtean, emandako jauziaren ondorioz

HURRENGO URTERA BEGIRA

Erronka polita dute Iñaki Corralen mutilek hurrengo urtean. Esan bezala, salto kualitatibo handia eman dute eta salto horretara egokitu egin beharko dira. Nola? Hortxe dago koska. Iñakiren esanetan, hasteko, abuztu amaieran denboraldiaurrearekin hasiko dira eta lagunarteko partidu gehiago jokatzea komenigarria litzake. Fitxaketak egitea ere ez dute alde batera lagatzen, baina oraindik horri buruz ezin da ezer esan.

Denboraldia amaituta eta Udalaren omenaldia jasota, oraindik bi zita dituzte. Lehenik, hurrengo astean Gernika eta Gasteizko Carniceria Sainz taldearen kontra torneoa izango dute. Ekainaren 11n kirol elkarteko denek bazkari batekin esango diote agur denboraldiari.

UDALETXEAN. Esker hitzak eta opariak bata besteari eskaini eta gero, luntxa izan zuten bertaratutakoek. Patatak, urdaiazpikoa eta, nola ez, xanpaina zabaldu zuten. Jan eta edateaz gain, solasaldi entretenigarriak egon ziren.

BAZKARIA. Eskoriatzako Txalaparta jatetxean izan zuten bazkaria. Bapo jateaz gain, Monakoko sariaren nondik norakoekin interes handia erakutsi zuten batzuek. Beste batzuek, ordea, etorkizunean zer hobetu daitekeen erabakitzen jardun zuten.

• OMENALDIKO PROTAGONISTAK

JUAN KARLOS BENGOA | ALKATEA

"Denboraldi honetan eman diguten poz eta ilusioak ez du preziorik. Ea hurrengo urtean ere poz bera ematen diguten".

MANOLO MUÑOZ | PRESIDENTEA

"Lehenengo kamiseta alkateari emango diogu, aurreko urtean moduan. Kantxa hobetzea derrigorrezkoa ikusten dut".

IÑAKI CORRAL | ENTRENATZAILEA

"Hurrengo urtean asko sufrituko dugu. Candelasen hitzaldia eskertzekoa da. Nahi dugunean laguntza emateko prest dago".

BORJA GARCIA | KAPITAINA

"Denboraldi hasieran ez genuen espero mailaz igotzea eta azkenean lehenak ez gelditzeagatik penaz gelditu gara".

ITO | JOKALARIA

"Denboraldi erdi aldera igoeran sinisten hasi ginen. Eskoriatzarendako handia da horrelako talde bat herrian izatea".

Arrasateko Hiper Eroskiko distribuzio berria

Mila esker zuen konfiantzagatik

EROSKI

Erosten jakin

• EUSKADIKO TXAPELKETAKO IGOERA FASEA

Epaileek kendu zituzten igotzeko azken esperantzak

Azken segunduetan joan zitzaien garaipena etxekoei epaileen lan txarragatik

AGR ARRASATE
29-29
DEUSTO LOYOLA

AGR Arrasate | Egaña, Valle, Jonan Eskibel (2), Aitor Eskibel (1), Garcia, Urrutia, Aitor Garcia (1), Espeso (1), Murillo, Lonbide (1), Calleja (11), Alzelai (8), Otegi (4) eta Carrasco.

Deuto Loyola | Trigeros, Garciariño (3), Muñoz (6), Hoyos (1), Buces (1), Garcia (7), Arreitia, Urizar (8), Martinez (1), Armendariz, Diaz (3) eta Ruiz de Coizaga.

Epaileak: Arkaitz Mendizabal eta Javier Ramiro. Oso gaizki.

AINTZANE AGIRRE

Lehen zatian, erasoan zailtasun handiak izan zituzten arrasatearrek baloia mugitzeko orduan.

Jokin Etxebarria

Esperantza urria zen, aukerak bezalaxe, baina zapatuan irabaziz gero, oraindik ere igoera lortzea posible zen. Epaileek, baina, zapuztu zituzten esperantza guztiak. 20 segundoren faltan, etxekoak gol baten aldearekin irabazten ari zirela eta baloia euren jabetzan zegoela, joko geldoa adierazi zuten etxekoen kontra, eta bilbotarrek kontraerasoan berdinketa lortu zuten. Partidua ezin irabazi, eta matematikoki igoera ezin lortu.

LEHEN ZATIAN NAHIKO GAIZKI

Lehen zatian, etxekoek igoera fase guztian zehar erakutsitako gabezia berdinak azaldu zituzten erasoan. Zailtasun handiak izan zituzten baloia mugitzeko orduan, eta golak sartzea asko kostatu zitzaien. Horri, defentsan nahiko lan eskasa egin izana gehitu behar zaio, eta hori guztia batuta, ez da harritzekoa markagailuko emaitza: 12-17.

Bigarren zatian, baina, gauzak zeharo aldatu ziren. Etxekoak defentsan gogor jarri ziren, eta kanpokoek izan zituzten orduan erasotzeko arazoak. Gutxika-gutxika jokoan nagusitzen hasi ziren Arandoren mutilak, eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Handik amaierara arte oso parekatua joan zen partidua, baina orduan epaileek protagonismoa bilatu nahi izan zuten, eta garaipena etxean geldituko zela ematen zuenean, epaileek lehen puntua eman zieten bilbotarrei.

• LAGUNARTEKO PARTIDUA

AINTZANE AGIRRE

VERKOL ALOÑA 25 - ZARAUTZ 25

Modu bikainean bukatu zuten Verkoleko neskek denboraldia. Maila handiko taldea zuten aurrean eta hortzak erakutsi zizkieten oñatiarrek zarauztarrei. Hasieratik irabazten hasi ziren etxekoak, euren joko ona kantxan erakutsiz. Bigarren zatian Zarauzkoak hobeto jokatzen hasi ziren eta partidua berdintzea lortu zuten. Emozio handiko bukaera izan zuen partiduak. Zarautzek partidua irabazteko baloia izan zuen, baina bikain aritu zen defentsa. Partidua amaitu ostean, talde osoak afari batekin agurtu zuen denboraldia.

• KADETE MUTILAK

AINTZANE AGIRRE

BERGARA 23 - ALDAKETA16 38

Bergararrek ezin izan zuten irabazi atzo kopako azken partidua Zarauzko taldearen aurka. Xabier Lijoren mutilak nahiko nekatuta zeuden, zapatuan Egiaren aurka atzeratutako partidua jokatu zuten eta. Horregatik, zarauztarren aurkako partiduan hasiera-hasieratik jokoaren erritmoan sartu ezinda ibili ziren. Saiatu ziren, baina markagailuko aldea hasieratik hasi zen handitzen kanpotarren alde, eta etxekoak ezinean aritu ziren. Azkenean, 15 goleko aldearekin galdu zuten, eta honenbestez, denboraldiari agur esan zioten Bergarako gazteek.

Aipagarri

NESTOR CALLEJA

Beti izan da Nestor Calleja arrasatearra AGRren goleatzaile nagusienetako bat. Zapatuan ere bere maila erakutsi zuen eta 11 gol eginez, partiduko golegile nagusi bihurtu zen. Bere golak beharrezkoak izaten dira partidu guztietan, eta azkenaldian normalean baino gol gutxiago sartzen bazebilen ere, zapatuan ederki ibili zen. Pena da, azkenean gol kopuru horrek taldeari garaipena eman ezin izana.

JARRAITZAILEEKIN AFARIA

Etxean jokatuko duten denboraldiko azken partidua zapatukoa izango zela aitzakia hartuta, AGRkoek euren jarraitzaileekin batera afaria antolatu zuten, zaleei urte guztian zehar emandako laguntza eskertu nahian.

JONAN ESKIBEL

Zapatuan jokatu zuen Jonan Eskibelek AGRrekin etxean azken partidua. Izan ere, datorren urtean Bartzelonara joango da ikastera, eta bere kide ohiak animatuko baditu ere, ezin izango du eskubaloian jokatu.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA IGOERA FASEA

AGR Arrasate-Deusto Loyola	29-29

LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)

Arrasate	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena
Bergara	Atsedena

SENIOR MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Zarautz	24-24

GAZTE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA

Urola-Aloña Mendi	21-25
Gatz Museoa Jakion	Atsedena

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Bera Bera-Arrasate	b.b.
Bergara	Atsedena
Verkol Aloña-Arrate	26-23

KADETE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA

Aloña Mendi-Donibane	27-25
Arrasate-Egia	11-49
Bergara-Aldaketa Hamasei	22-38

KADETE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Urola-Verkol Aloña	11-49

• 2. MAILA NAZIONALA

Mailari eutsi, eta bikain gainera

Denboraldiko partidu onena izan zen. Zona barruko jokoa izan zen gakoa, eta nafarrek ezin izan zuten gelditu etxekoen joko azkarra

ESKORIATZA
82-36
UNIV. PUBLICA NAVARRA

Eskoriatza | Usabiaga (25), Laborda (5), Gomez (4), Alarcia (4), Sebastian (3), Murillo (10), Etxebarria (21), Soriano, Exposito (2), Etxebarria eta Romera (8).

Univ. Publica Navarra | Iñigo, Aleman (8), San Martin, Muñoz, Chic (13), Lezaun (2), Argaya (1), Ona, Flandes (8), Artuch, Cadenas, eta Aranez (4).

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena: 19-15. Bigarren laurdena: 42-25. Hirugarren laurdena: 64-32. Laugarren laurdena: 82-36.

Jasone Zabala

Denboraldiko partidurik garrantzitsuenean, partidu onena jokatu zuten Eskoriatzako neskek.

Universidad Publica de Navarra taldea zuten bisitari. Talde nafarrak maila galduta zeukan aurretik ere, baina etxekoek irabazi beharra zuten, beste emaitza batzuen zain ez egoteko. Hasiera hasieratik motibazio handiarekin atera ziren Fernando Rasoren neskak.

Lehen laurdenetik hasi ziren korrika egiten, eta defentsa oso ona egiten, intentsitate handiz. Nafarrak Zonakako defentsan jarri ziren, baina etxekoek ederki apurtu zuten defentsa hura barneratze bikainekin. Gainera, taula azpian, Maite Usabiaga ederki mugitzen ari zen, eta iristen zitzaizkion baloi guztiak saski barrura sartzen zituen. Nafarren ezintasuna lehen laurden honetan hasi zen, baina hala eta guztiz ere, lehen hamar minutuetan markagailuko aldea txikia zen etxekoen alde: 19-15.

Bigarren laurdenetik aurrera, markagailuko aldeak polikipoliki gora egin zuen. Eskoriatzak azkar jokatzen jarraitzen zuen, behin eta berriz asmatuz. Nafarrak etxekoen jokoan sartu ziren, baina ez zen batere ona izan beraientzat baloi mordo bat galdu baitzituzten.

Hirugarren laurdenean, Eskoriatzako neskek ez zituzten besoak jaitsi, nahiz eta alde ikaragarria izan markagailuan, eta garaipena gertu zutela ikusten zuten; baina partiduari oraindik beste hamar minutu gelditzen zitzaizkion.

AINTZANE AGIRRE

Denboraldiko partidurik onena jokatu zuten eskoriatzarrek.

NAGUSITASUN OSOA

Laugarren laurdena, ondo pasatzeko laurdena izan zen etxekoentzat, garaipena eskuetan zuten eta. Rasok aldaketa batzuk egin zituen, eta ohikoa ez zen bostekoa atera zuen jokora. Handik aurrera festa Intxaurtxuetako kiroldegian. Bertara hurbildu ziren jarraitzaile guztiek jokaldi bikainak ikusteko aukera izan zuten partiduko azken momentura arte. Azkenean, hortaz, 46 puntuko aldeaz lortu zuten garaipena, eta maila honetan lekua badutela argi utzi zuten. Partidu amaieran jokalariek eskerrak eman zizkieten bertara hurbildutako guztiei.

Gorabeherak

GORA
Bigarren maila nazionala
Urte osoan zehar borroka egin ondoren, merezitako saria jaso zuten neska nagusiek. Partidu zailak izan ditu denboraldi guztian zehar taldeak, batzuk irabazi beharrekoak eta galdu egin dituztenak, eta beste batzuk ederki irabazi dituztenak; baina beti ere, duten guztia eman dute jokatu duten bakoitzean.

Eskoriatzako Saskibaloi saila
Urtero bezala egindako ahalegina handia izan da, presidentearengandik hasi, eta azkeneko jokalariraino. Manolo Muñoz da presidente, eta beti taldea goi mailan izateko ahaleginak egin ditu. Duten guztia ematen dute denek hutsaren truke, eta hori goraipatzekoa da.

Maite Usabiaga
Denboraldiko partidurik onena egin zuen bergararrak zapatuan. Taldeak hori eskertu zuen bene-benetan. Bere maila topatu ezinda ibili da orain arte, baina partidu garrantzitsuenean, erakutsi du taula azpian ez duela aurkaririk.

BEHERA
Eukeneren lesioa
Denboraldi guztian zehar maila bikaina erakutsi ondoren, zapatuko partiduan orkatila bihurritu zuen, eta lesionatu egin zen. Hala eta guztiz ere, jokatu nahi izan zuen denboraldiko partidurik garrantzitsuena, eta halaxe egin ere.

Bigarren zatian irabazi zuten

ARANETA
52-41
TOLOSA

Araneta | Aizpurua, Santamaria, Arazkonaga (2), Fernandez (15), Olatexea (8), Bernardo, Gantxegi (5), Galarraga, Iturrospe, Elorza, Moracho (9) eta Antxon (13).

Tolosa | Etxeberria, Moreno, Zubeldia (10), Goikoetxea (10), Lasa (8), Zalduendo (2) eta Izagirre (11).

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena 7-11. Bigarren laurdena 15-23. Hirugarren laurdena 36-35. Laugarren laurdena 52-41.

Jokin Etxebarria

Kostata, baina bigarren zatian atera zuten euren jokoa Bergarako gazteek. Eta horri esker irabazi zuten. Garaipen honek gainera, lehen postua lortu ahal izatea ekarriko die bergararrei. Baina horretarako datorren astean Ordizian irabazi beharko dute.

ERASOAN ARAZOAK

Lehen zatian arazo askotxo izan zituzten Aranetakoek erasoan. Tolosakoak zonakako defentsan jarri ziren, eta etxekoek ez zuten jakin izan defentsa hari nola eraso egin. Eskerrak defentsan nahiko lan ona egin zuten, eta partiduan mantendu ahal izan ziren.

JOKIN ETXEBARRIA

Lehen zatian, erasotzeko arazo handiak izan zituzten bergararrek.

Bigarren zatian, baina, gauzak zeharo aldatu ziren. Etxekoak defentsan lapurtutako baloiekin kontraerasoak egiten hasi ziren, lehenengoz partidu guztian. Baloia hobeto mugitzen hasi ziren. Markagailuari buelta eman zioten, eta gutxika-gutxika abantaila handitu zuten. Hori ikusita kanpokoek burua galdu zuten, eta garaipena orduan eta errazago lortu zuten etxekoek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candy BKE	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Araneta-Tolosa	52-41
La Salle-Mugarri Alkesa	69-56
Atc. S.S-Aloña Mendi	61-44

KADETE MAILA

Easo B-Mugarri Alkesa	43-55
Gros Xake-Lacor	78-38
Aloña Mendi	Atsedena

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-U.P.N.	82-36

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Añorga	31-32
Indulita-Eskoriatza	36-34

KADETE NESKAK

Bergara	Atsedena
Eskoriatza	Atsedena

Xiba: Euskal herrien arteko euskal jokoen bigarren topaketa

• TOPAKETA

Euskal jokoen topagune bihurtu zen Aretxabaleta

Eguraldiaren ezegonkortasuna zela eta, Arrasatetik Aretxabaletara lekualdatu zuten topaketa

Jon Unamuno

JON UNAMUNO

Trontzalariekin, zailtasuna zela eta, izugarrizko ikusmira egon zen.

Ikusgarria. Hitz batean horrela definituko nuke Aretxabaletan ikusitakoa. Gipuzkoa osotik etorritako 11 taldek parte hartu zuten euskal jokoen bigarren topaketa honetan. Orain dela bi aste Saran egin ziren Iparraldeko kanporaketak eta aurreko astean Gasteizen. Hurrengo astean Iruñeak eta Areatzak hartuko dute topagunea. Finala Zarautzen edo Orion izango da ekainaren 18an. Lurralde bakoitzetik lau edo bost talde joango dira final horretara.

JOKO HERRIKOIAK

Ingudea, lokotxak, sokatira, dantza eta beste hainbeste proba egin behar izan zituzten taldeek. 12 lagun hartu zituen (sei neska eta sei mutil) talde bakoitzak eta euren artean erabaki zuten zeinek zer egin.

Helburu nagusia aisialdian joko herrikoi hauen presentzia areagotzea edo, behintzat, praktikatzeko aukera izatea bada ere, amaieran, puntuaketen ondorioz, sailkapen bat egon zen. Idiazabalgo taldeak lortu zituen puntu gehien. Asteasukoak izan ziren bigarren eta Zizurkilgoak hirugarren. Arrasateko bi taldeak zortzi eta bederatzigarren gelditu ziren.

• BERTARATUTAKOEN ESANAK

OSTAISKA ETA OIHANA | ARRASATE 1

"Ostaiskak xibarekin abilezia erakutsiko du eta nik lastoa altxatuko dut. Sokatiran biok jardungo dugu. Kirola gustuko dugu eta hemen giroa aparta da".

ARITZ ETA JON | LEGORRETA

"Guk ez dugu parte hartzen. Lagunak animatzera etorri gara. Bukatu ostean, etorri garen 40 lagunok Legorretara bueltatuko gara eguna borobiltzera".

JOKIN ETA DEIANE | ARRASATE 2

"Dantzan arituko gara biok. Adinez gazteenak gu gara eta ez dugu probetan aurreneko postuetan gelditzea espero. Ondo pasatzeko parte hartu dugu".

Labur

Fernando Markinak Gipuzkoako Arku-tiro Absolutuko txapela lortu zuen Donostian

Gezi-bat arkulari taldeko Fernando Markina bergararrak, lehen postua lortu zuen zapatuan Donostian. Azken txanpan, nor baino nor aritu ziren Fernando eta Juan Mari Urretabizkaia urretxuarra, baina azkenean bergararrak irabazi zuen. Gainera, nobel mailan, Markel Familiar bergararra bigarren postuan sailkatu zen, lan bikaina egin ondoren.

• 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA

AINTZANE AGIRRE

100 TALDETIK GORA ELKARTU DIRA AURTEN

Beste urtebetez jarduera arrakastatsua izan zen Arrasateko 3x3 saskibaloi txapelketa. Aurtengoan gainera joan den urtean baino talde gehiago elkartu ziren: 100 taldetik gora, lau mailatan banatuta, hain justu ere. Goiz eta arratsaldez bete zituzten Laubide plazan jarritako 11 saskiak. Giro ezin hobean ibili ziren, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik etorritako gaztetxoak.

• GALEPER TIROKETA

AINTZANE AGIRRE

LIBERTO ABASOLO ARRASATEARRA TXAPELDUN

Hilerri berriaren ondoko zelaiek hartu zuten galeper txapelketa. Leintz elkarteak antolatuta, 36 ehiztarik jardun zuten. Bost galeperrekin berdinketa egon ostean, bigarren txandan Liberto Abasolo arrasatearra gailendu zen. Bigarrena eta hirugarrena Josu Gallastegi eta Gregorio Tejero arrasatearrak izan ziren. Ekainaren 11n izango dute hurrengo zita leku berean, orduan usakumeekin.

• ARRANTZA TXAPELKETA

AINTZANE AGIRRE

GIRO POLITA OÑATIKO ARRANTZA TXAPELKETAN

Atzo ospatu zen Oñatiko Arantzazu errekan urtero egiten den arrantza txapelketa. Guztira 35 parte-hartzaile izan ziren, oñatiarrak gehienak. Gazteetan, irabazlea Jon Agirre izan zen, 8 amuarrainekin; bigarren, Markel Iriondo 7rekin, eta hirugarren, Andoni Cantabrana 6rekin. Nagusietan, lehena, Jose Antonio Novoa izan zen 3 amuarrainekin, bigarren, Javier Vera 2rekin, eta hirugarren Josu Lizarralde 2rekin.

Bote Luzea

• BIGARREN TOPAKETAKO AZKEN JAIA

Gaztetxoen arteko jokoan Lazkaotarrak nagusitu ziren

Giro ederra izan genuen zapatu goizean Oñatiko plazan. Ezezaguna den jokoa ezagutzera eman nahian, hainbat gazte bildu ziren

Jasone Zabala

Zapatuan ospatu zen Oñatin bote luzeko II. topaketako azken jaia. Azkena zenez, talde irabazleak Oñatin erabaki ziren. Goizeko 10etan hasi ziren jokoan, eta eguerdira arte iraun zuen. Lau joko eremutan banatu zuten Oñatiko plaza, eta bertan aritu ziren gazte guztiak. Hauek izan ziren, lehen lau postuetan gelditu ziren taldeak: lehen postua, Lazkaoko taldearentzat izan zen; bigarrena, Oiartzungo taldearentzat; hirugarrena, Pasaiakoarentzat eta laugarren tokia Azpeitiko taldearentzat. Lehen hiru sailkatuentzat txapelak izan ziren, eta laugarrenek bote luzean jokatzeko erabiltzen dituzten pilotak izan zituzten opari.

Guztira Gipuzkoako 16 herritatik etorritako 19 talde aritu ziren elkarren artean jokoan. Debagoienetik, Arrasate, Bergara, Antzuola, Aretxabaleta eta Oñatiko gazteak aritu ziren. Parte hartu zuten beste herriak hauek izan ziren: Donostia, Orio, Lazkao, Elgoibar, Andoain, Azpeitia, Zumaia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil eta Tolosa. Guztira 265 neska mutil aritu ziren. Ikusmina sortu zuen bertara hurbildu ziren ikusleen artean, aspaldi galtzear zegoen jokoa delako bote luze jokoa, eta ikusteko oso polita delako.

Pasa den urteko topaketako finala Donostian izan zen, eta aurtengoa Oñatin izan da. Aurtengo bigarren topaketa honetarako sailkatze probak 2004ko urria geroztik ibili dira egiten Gipuzkoako hainbat herritan , eta zapatuan izan zuen amaiera; hirugarren topaketa, datorren urtean izango da. Antolatzailea Kutxa izan da, baina guztia aurrera eraman duena Ikaspilota izan da, Ikastolen Elkartearen barruan dagoen proiektua.

Jendearen ikusmina handia izan zen, jokoaren nondik norakoak jakin nahian

Gazteek erakutsi zuten, nahiz eta arauz betetako jokoa den, erraz jokatu daitekeela

AINTZANE AGIRRE

Oñatiko plazara hurbildutakoen artean ikusmin handia sortu zuen bote luzea jokoak.

BERRESKURATU NAHIAN

Bote luzeko jokoak Zuberoan irauten du bakarrik, eta ekimen honekin gainerako lurraldeetara ere hedatu nahi dute. Horregatik, gaztetxoen artean halako topaketak antolatzeari garrantzitsua iritzi diote, aspaldiko ohiturak berreskuratzeko modua delako. Gainera, oso joko dibertigarria da eta gazteek oso ondo pasatzen dute.

• GUSTATZEN ZAIZUE BOTE LUZEA JOKOA?

IHINTZA | AZPEITIA

"Asko gustatzen zait joko hau. Bere berri ez neukan, baina ikastolan hasi gara praktikatzen".

JON | AZPEITIA

"Asko gustatzen zait joko hau. Aspaldikoa da, baina berreskuratu nahi dugu, oso polita delako".

MAITANE | ZUMAIA

"Orain arte Zumaian bakarrik jokatu dugu bote luzean, eta asko gustatzen zait, dibertigarria da".

HLB 108 TALDEA TXAPELDUN ZALDIBARKO KOPAN

Saukelu Scream taldearen kontra partidu gogorra jokatu ostean, HLB 108 taldea izan zen txapelduna. Momentu batzuetan partidu beroa izan zen (10 penalti bikoitz adierazi ziren), baina amaieran, kiroltasunez, bi taldeek lagunartean jaso zuten garaikurra (kopa eta urdaiazpikoa). Lehen zatia 3-1 emaitzarekin amaitu zen HLB 108 taldearen alde. Hiruna berdindu zuten Saukelu Screamekoek eta jokaldi eztabaidagarri batean etorri zen irabazleen laugarrena. Penalti bikoitz bidez sartu zuten bosgarrena.

ELORRIOKO ZALDIBALTZAK GARAILE BERGARAKO XAKE TXAPELKETAN

Zapatu arratsaldean jokatu zen Bergara hiriko xake txapelketa. 32,5 punturekin irabazi zuten Zaldibaltzek. Bigarrenak Logroño taldekoak izan ziren 25, 5 punturekin eta hirugarrenak Durango taldekoak 23,5 punturekin. Bergarako Zaleak eta Grupo ajedrecistas taldeak ere bertan izan ziren. Lehenengoek bosgarren bukatu zuten 10,5 punturekin eta bigarrenek seigarren 5,5 punturekin. Banaka begiratuz gero, Logroñoko Miguel Angel Saenz izan zen jokalaririk onena eta Elorrioko Alberto Sardan bigarrena.

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

• Zapatuan banatu zituzten Bergaran Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sariak | 24
• Gerediagaren olerkiak irudikatu zituen Antzerkiola taldeak Arrasaten | 25

Los Porretas taldeak emanaldia egin zuen Errekealdeko jaietan | 25

BELAUNALDI OSO BATEN BIZIPENAK



AINTZANE AGIRRE

Alfonso Sastrek eta Rogelio Botanzek ordu eta erdiko emanaldia egin zuten Elgetan. Sastreren hainbat olerki entzuteko aukera izan zen.

ESPALOIAN | 'ROGELIO BOTANZ CANTA A ALFONSO SASTRE' DISKOAREN AURKEZPENA ELGETAN

Alfonso Sastre: "Jakin ezazue mundu hau bihotz berri bat erditzen ari dela"

Alfonso Sastre idazlearen nondik norakoak ezagutu genituen barikuan. Rogelio Botanz izan zuen lagun agertokian. Bien ahotan hain aspaldikoak ez diren garai eta bizipen gogorrak entzun genituen

Larraitz Zeberio

Lagunak dira, baina benetako benerazioa dio Rogelio Botanz legazpiarrak Alfonso Sastre idazleari. Duela 25 urte ezagutu zuten elkar, musikaria idazlearen Hondarribiko etxe atarian agertu zen egun batean. "Zure hiru poemari musika jarri diet", esan zion. "Harrezkero, poeta handien moduan, nire poemak abesten dituen musikaria daukat", azaldu zuen bizkarrari eraginez Espaloiko agertokian Alfonso Sastrek.

Bi lagunak kaleratu berria duten *Rogelio Botanz canta a Alfonso Sastre* diskoa aurkezten ari dira egunotan. Barikuko kontzertuan 60 bat lagun elkartu ziren Espaloian. Kontzertu hunkigarria izan zen. Oso hurbilekoa. Publikoa gustura egon zen. Hiru aldiz agurtu gintuzten poetak eta musikariak.

BELAUNALDI OSO BATEN BIZIPENAK

Alfonso Sastre gorriak eta bi ikusitakoa zen Rogelio Botanz jaio zenerako. Alderdi komunistako kidea laster espetxeratu zuten Francoren gizonek. Idazle debekatua izan zen luzaz baina isilezina.

Sastreren adoreak eta baikortasunak liluratu zuen Botanz. Bere poemak kantatzen hasi zen orduan. "Oso bizipen pertsonalak dira, baina aldi berean belaunaldi oso batek bere egiten dituenak, momentu historiko ilun baten kronika fidela direlako", adierazten du Botanzek.

Hala, barikuko emanaldian Sastre-Forest familiaren hainbat bizipen ezagutu genituen: alaba

> Alfonso Sastreren adoreak eta baikortasunak liluratu zuen Botanz
>
> Utopia aldarrikatzen du orain ere Sastrek, "mundu hobeagoa posible da"

espetxe batean jaio izanaren albistea jasotzen duen preso baten sentipenak, etorkizun hobeago baten uste osoarekin seme- alabak eskutitz bidez adoretzen dituen aita baten hitzak, klase ekonomikoen arteko bereizketa behin eta berriz salatzen duen preso baten gogoetak...

BAIKORTASUNEZ BETI

Tartekatu egin ziren bi lagunak. Behin baino gehiagotan, gainera, lehenengo olerkiak entzun genituen eta ondotik kantua. Sastrek argi dauka, "bere musikarekin Rogeliok indar handia ematen die nire bertsoei. Asko Manifestu bihurtzen ditu". Utopia aldarrikatzen du oraindik ere idazleak. "Mundu hobeago bat posible da".

BELAUNALDI OSO BATEN BIZIPENAK

Elkar aurkitu zuten duela 25 urte eta osagarriak direla ulertu zuten

L. Z.

Besarkada handia eman zioten elkarri Elgetako Espaloian elkartu zirenean. Azkenaldian asko ikusten dute elkar. Disko berriaren aurkezpen kontzertuak asko dira egunotan.

LARRAITZ ZEBERIO

Rogelio Botanzek eta Alfonso Sastrek azken horren emazte Eva Forestek antolatuta grabatu dute dizkoa.

Nola bizi duzue esperientzia berri hau? Diskoa grabatu, kontzertuak han eta hemen...

Alfonso Sastre: Lehen aldia da niretzako eta esperientzia oso polita da. Antzerki asko idatzi dut baina beti ikusi dut nire burua agertokien atzean. Orain barruan nago eta aitortu behar dut ez dudala nire burua oso eroso ikusten, baina pozik nago. Ilusioa egiten dit nire poemak abestu egin daitezkeela ikusteak. Rogeliok, gainera, laguntza handia eskaintzen dit eta bere esperientzia handia da.

Rogelio Botanz: Niretzat ohore handia da Alfonso Sastrerekin batera aritzea. Nire bizitza osoan harro gogoratuko dudan zerbait da. Gogoan dut Alfonsoren testu bat lehen aldiz irakurri nueneko zirrara. Benerazioa diot gizon honi.

Nola definituko zenukete eskaintzen ari zareten emanaldi sorta hau? Poesia da? Musika da?

A.S.: Poesia eta musika espresiobide bereko bi forma dira. Gauzak adierazteko bi forma dira, baina oso parekoak. Musika poesia da nolabait eta poesia musika. Errimak egitearekin ez dugu poesiarik lortzen. Musikaltasunik lortu ezean jai daukagu. Musika eta poesiaren arteko harremana oso estua izan da betidanik. Kantautoreak zer dira? Euren poemekin musika egiten duten artistak. Poetak eta musikariak dira. Biak batera. Ez gara ezer berria egiten ari. Poesia eta musika batera uztartzea oso aspaldiko kontua da.

R.B: Nire burua juglare lanetan ikusten dut, gehien bat lantzen ditugun edukiak kontuan hartuta. Juglareek herriko plazaren erdian jarri eta momentuko kronika egiten zuten moduan, guk ere momentu historiko konkretu baten kronika egiten dugu.

Eman kontzertu kidearen pare bat ezaugarri?

A.S.: Azken urteotan Rogeliok lan handia egin du eta asko sakondu du sentimenduen adierazpenean. Ahotsa ere asko landu du eta findu egin du.

Ezagutu nuenean ona zen, baina orain askoz ere hobea. Kantautorea den aldetik, bestalde, poeta ere bada. Eta nabarmenduko nuke bere erresistentzia espiritua. Erresistentziako kide bat da, kultura-erresistentziako kidea. Bidegabekeriak salatu ditu eta ideal horiei fidela da gainera edonon egonda ere.

R.B.: Alfonso koherentea, argia eta gaur egunekoa da. Alfonsoren koherentziak ni inoiz helduko ez naizen mailaraino iristen da. Bere olerkiak, bestalde, oso argiak dira. Nire aitak ez du ikasketarik baina Alfonsoren hitzak oso ondo ulertzen ditu. Azkenik, gaurkotasun handikoa dela esango nuke. Duela 40 urte idatzitako poemak gaur egunekoak dira oraindik ere. Ikaragarria da.

Aukeratu lagunaren obra bat.

A.S.: Bat aukeratzea zaila egiten zait. Aukeratzekotan, agian, *Esto de la vida un dia se termina*. Lau lerroko nire poema batekin kantu bat egin du eta jarraipena eman die nire hitzei lehen bertsoaren filosofia luzatuz. Oso ondo gainera.

R.B.: Bere seme-alabei eskaintzen dien *Salud* poema. Hain da baikorra! Nola daiteke egoerarik gogorrenean ere amaiera zoriontsu baten uste osoa izatea? Zalantza izpirik gabeko ilusio hori ikaragarria da... Kartzelan idatzitako bertsoek diote : "Infernuko Espainia hau ezin daiteke betirako izan".

Nork zaintzen du gehien adiskidetasun hau?

A.S.: (Barre). Adiskidetasuna benetakoa bada zaintza gutxi behar du. Ez du inongo ahaleginik eskatzen. Niri behintzat adiskidetasun honek ez dit esfortzu sentsaziorik uzten.

R. B.: Harreman hau oso desorekatuta dago. Nik kantautore lanetan eman dezakedana ikusteko dago oraindik. Alfonso, ordea, idazle kontsakratua da. Beti eskertuko diet Alfonso eta Evari egin didaten harrera. Oporretan etortzen naizenean ikusten dugu elkar. Beti egiten diet bisita bat Hondarribira. Gure harremana familia artekoa da. Iloba banintz bezala hartzen naute azaltzen naizen bakoitzean.

30 urteko aldea dago zuen artean. Hori arazoa izan da?

A.S.: Ez, eta uste dut belaunaldien arteko gatazka hori ez dela hainbesterainokoa. Gizarte honetan aldentzen gaituena ez da adina, baizik eta klaseen arteko bereizketa. Aberatsak eta pobreak. Hori da benetako konfliktoa, ez adina. Gizarte honek arreta desbideratu nahi du baina funtsezko arazoa hori da.

R.B.: Nire ustez adina ez da arazoa. Jarrera kontua da. Pertsona batzuk tematzen dira gauzak betidanik ezagutu dituzten moduan mantentzen. Ondo doakie eta ez dute aldaketarik onartu nahi, nahiz eta jakin hoberako izan daitezkeela. Beste pertsona batzuk, ordea, irekiak dira eta urteak daramatzate gauzak aldatzeko asmo sakonean. Ilusio hori partekatzen duten pertsonen artean ez dago arazorik. Gakoa ez da adina. Gero eta argiago ikusten dut.

Nola ikusten duzue kultura?

A.S.: Ez dakit. Ez dut ezer benetan garrantzitsurik ikusten.

R.B.: Egunero galdetzen diot nire buruari jende gaztea non ote dagoen. Ez ditut ikusten.

"Rogelio Botanz kultura-erresistentziako kide fidela da"

"Agertokian ez naiz oso eroso sentitzen, baina Rogeliok asko laguntzen dit"

"Niretzat ohore handia da Alfonso Sastrerekin batera emanaldiak egitea"

• KONTZERTU AMAIERAN PUBLIKO ARTEAN BILDUTAKO ZENBAIT IRITZI

MERTXE | ARRASATE

"Oso kontzertu hunkigarria izan da. Testuen gaiak, abesteko modua... Asko gustatu zait".

PELLO | ANTZUOLA

"Bikain lotu dituzte musika eta poesia. Asko gustatu zait. Pena jende gutxi etorri izana".

RAFA, MERTXE ETA JUAN LUIS | DONOSTIA ETA EIBAR

Juan Luis eta Mertxek etxean dute Rogelioren diskoa. "Zuzenean gehiago gustatu zaigu", esan digute. Hirukoteak betidanik ezagutzen du Sastreren lana. Botanzen musika, aldiz, duela bi urte ezagutu zuten. "Indar handia du".

MARIA LUZ, ANGELES ETA CRISTINA | SANTANDER

"Bikain aritu dira biak", esan digute. "Rogelioren lana aspalditik ezagutzen dugu eta gaurkoan oso gustura ikusi dugu Alfonso Sastrerekin batera". Cristinak eskuko poltsan zuen diskoa eta Sastreren autografoa nahi zuen.

XANTI ETA RUTH | GASTEIZ

"Aste Santuan ezagutu genuen Rogelio Tenerifen. Kontzertua bikaina izan da. Sastre hunkitu egiten da oraindik ere bere poemak kantuetan entzundakoan".

LITERATURA | ZAPATUAN BANATU ZITUZTEN SARIAK ZABALOTEGI ARETOAN EGINDAKO EKITALDIAN

Sekula baino partehartze handiagoa Koldo Eleizalde literatura lehiaketan

556 lan jaso ditu Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak lehiaketaren 20. aldian

M.B.

Zapatuan banatu zituzten Bergaran Koldo Eleizalde literatura lehiaketako sariak. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen du lehiaketa eta aurtengoari dagokionez, azpimarratzekoa da izandako parte-hartzea; izan ere, 556 lan jaso dituzte: ipuin idatziak sailean, 401 ipuin; bertsoen sailean, 15 bertso sorta; ipuin kontaketa/antzerkia atalean, 42, eta komikien atalean, berriz, 98.

Bestalde, sail horietako bakoitzean adinaren araberako mailaketa egin dute, ohi bezala, eta guztira 31 irabazle erabaki dituzte. Irabazleok zapatuan, Zabalotegi aretoan egindako ekitaldian jaso zuten saria. Bertso, musika eta dantza saioak borobildu zuten sari ematea.

LARRAITZ ZEBERIO

Irabazle guztiak ez, baina gehienak joan ziren zapatuan saria jasotzera.

Saridunak

IPUINA

• 1. TALDEA (1997-98AN JAIOAK)
1. saria: *Azti bikoitza.* Garazi Zubizarreta
2. saria: *Ilargia eta eguzkia.* Maitane Juaristi
3. saria: *Otso beldurdia.* Irati Olaziregi

• 2. TALDEA (1995-96AN JAIOAK)
1. saria: *Elurrezko panpina.* Asier Sampietro
2. saria: *Txoriak eta ostadarra.* Maria Martinez
3. saria: *Uso alperra.* Julen Marquez

• 3. TALDEA (1993-94AN JAIOAK)
1. saria: *Hegan ez zekien txoria.* Leire Igarza
2. saria: *Joi ume lodia.* Nekane Muñoz.
3. saria: *Mitxele ipurtaundi.* Julen Marquez

• 4. TALDEA (1990-091-92)
1. saria: *Etxeko lanak.* Xabier Aranzeta
2. saria: *Mutiko zibernetikoa.* Enara Alberdi
3. saria: *Erabaki gaitza.* Aintzane Oregi

• 5. TALDEA (1989 EDO AURRETIK)
1. saria: *Pepita eta Pepito.* Bixenta Arrillaga
2. saria: *Ziegako oihartzuna.* Ane Moñux
3. saria: *Itzalaren beldur.* Ana Peñalva

KOMIKIA

• 1. TALDEA (1993-9AN JAIOAK)
1. saria: *Txiki txoria.* Asiera Laria
2. saria: *Braulio eta bere brauliokeriak.* Elene Etxaniz
3. saria: *Bi neska-mutilen ama eroetxean.* Oihane Axpe

• 2. TALDEA (1990-91-92)
1. saria: *Ze ederra zaren.* Ander Barruso
2. saria: *Txorimaloa.* Aitor Mugika

• 3. TALDEA (1989 EDO AURRETIK)
1. saria: *Zebrabideak?* Unai Azkarate
2. saria: *Beti mozkorrak.* Jon Iraegi

BERTSOA

• 1. TALDEA (1993-94AN JAIOAK)
1. saria: *Martxoak 19.* Beñat Etxabe.
2. saria: *Bi mila eta bian.* Jokin Etxabe

• 2. TALDEA (1990-91-92)
1. saria: *Eguneroko maitasuna.* Irati Alberdi

• 3. TALDEA (1989 EDO AURRETIK)
1. saria: *Hausnarketa, minez beteta.* Irati Agirreazaldegi
2. saria: *Bi hitz hemendik.* Maitane Azkarate-Askasua

IPUIN KONTAKETA / ANTZERKIA

• 1. TALDEA (1999 EDO ONDOREN)
Artzain gezurtia. San Martin ikastetxea

• 2. TALDEA (1993-98AN JAIOAK)
Mikel eta Amaiaren ezkontza. Aranzadi ikastola
Petranka makilanda. Aranzadi ikastola

• 3. TALDEA (1992EDO AURRETIK)
Euskararen geroa. Jon Montiel eta Uxue Agirre

Esaera zaharrak, bertsoak, musika... eta giro paregabea

M.B.

Esaera zaharrak ardatz hartuta, bertsotan jardun zuten aramaioarrek egubakoitz arratsean. Tabernaz taberna ibili ziren giroa alaitzen, eta hori gutxi balitz, afaltzera ere joan ziren 30 bat lagun Intxaurrondo elkartera. Izan ere, Txirritola Euskara Elkarteak eta Aramaioko Bertsolari Elkarteak Esaera Zaharren Bertso Lehiaketa eta kantu afaria antolatu zituzten egubakoitzerako, bata bestearen ondoren.

Lehiaketari dagokionez, ondokoa egin behar zuten parte-hartzaileek: puntutzat esaera zaharra emanda, bertsoak bota. Iaz ere egin zuten lehiaketa eta adinaren araberako bi taldetan banatu zituzten parte-hartzaileak; egubakoitzekoan, aldiz, lau taldetan banatuta jardun zuten, baina talde bakoitzean adin guztietako pertsonak aritu ziren. Kantu afarian, berriz, abesteaz gain dantzan ere egin zuten trikitilarien doinuekin eta giroa ezin hobea izan zela aitotu digute.

AINTZANE AGIRRE

Afariaren ostean Eskoriatzara jaitsi ziren hainbat lagun HUHEZIko jaiaren giroan murgiltzera.



AINTZANE AGIRRE

Amaia Antzokiko hallean izan zen antzezlana egubakoitz iluntzean.

Gerediagaren olerkiak irudikatu zituen Antzerkiolak

'Fitola balba karpuki tui' lana erakutsi zuen Antzerkiola Imaginarioak Arrasateko Amaia antzokiaren hallean

Asteleheneko Goienkaria

Poesia, irudiak, kantak eta antzerkia nahasten dituen lana da *Fitola balba karpuki tui*, Jon Gerediagaren idazlanean oinarritutako formatu txikiko antzezlana. Kultur Errota programaren barruan aurkeztu zuen AEDk joan zen egubakoitzean Amaia Antzokian. Eta formatu txikiko lana izatera, antzokiko hallean antzeztu zuten Antzerkiola Imaginarioa taldeko Ander Lipus, Alex Gerediaga eta Miren Gaztañagak.

APUSTU AUSARTA

Horrelako kultura-eskaintzari ondo erantzutea ez da erraza izaten, antzezlan nahiko bereziak izaten direlako, eta Arrasaten ere ez zen jende askorik animatu. Hala ere, goi mailako lanaz gozatu zuten bertaratutakoek. Berrogei bat minutuko antzezlana izan zen eta Jon Gerediagaren liburuko poemak proiektatutako irudiekin nahastu zituzten Antzerkiolakoek.

Muntaia polita zen, ausarta. Izan ere, formatu txikiko antzezlanak, normalean, komikoak izaten dira, edo bakarrizketak, eta *Fitola balba karpuki tui* erabat ezberdina da.

BESTE BI SAIO

Kultur Errotaren barruan beste bi saio eskainiko ditu AEDk Arrasaten. Uztaila aldera musika saioa egongo da, Morau ta Agotak. Azkeneko saioa udagoien aldera antolatuko dute euskara elkartekoek.

ESKORIATZA | **PETTI BAKARLARI BERATARRA IZAN ZEN GAZTETXEAN ATZO**

Axtroki euskara elkarteak antolatutako kontzertuan aritu zen Petti Eskoriatzako gaztetxean atzo. Kontzertua apur bat beranduxeago hasi zuen beratarrak eta ordubete pasatxoko emanaldia egin zuen.

Etxeko uzta bere azkeneko lan bildumako kantak eta abesti zaharragoak nahastu zituen emanaldian. Baina betikoari eutsiz inprobisazioari ere lekua egin zion Pettik eta, tartean, Jimmy Hendrix handiaren kanta baten bertsioa ere egin zuen.

Kontzerturako sarrerarik ez zuen jarri Axtroki euskara elkarteak. Berrogei bat lagun animatu ziren gaztetxera hurbiltzera, gehienak herritik kanpokoak gainera. Hala ere, giro polita sortu zuen bakarlari bikainak. | A.G.

ROCK KONTZERTUA | **LOS PORRETAS ETA POTEMKIN**

Oñatin, Errekalde auzoko jaien barruan, kontzertua izan zen egubakoitz gauean. Jende asko batu zen Madrilgo Los Porretas taldea eta Oñatiko Druces eta Potemkin ikustera. Druces taldeak ireki zuen kontzertua eta giroa berotzen hasi zen. Haien ondotik Potemkinen txanda iritsi eta Errekaldeko plazan batu ziren entzuleak gehiago animatu ziren oraindik. Ikusleetako hainbatek, gainera, ondo baino hobeto ezagutzen ditu Potemkin taldearen hitzak eta hori nabaritu egin zen. Los Porretasek gaua borobildu zuten. | A.G.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Debagoieneko lau margolariren erakusketak bisitatzeko aukera dago

Abdon Juaristiren antologiak zabalik dirau Bergaran ekainaren 12ra arte, baina bisita ordutegia aldatu egin dute

Leire Kortabarria

Debagoieneko margolari ezagunen erakusketak bisitatzeko aukera dago egunotan. Batzuek oraintsu zabaldu dituzte, beste batzuk badaramatzate hainbat egun zabalik.

Horien artean nabarmendu behar da Abdon Juaristi (1948-1997) bergararraren erakusketa antologikoa, Bergarako Aroztegi aretoan. Bisitatu nahi duenak kontuan hartu beharko du ordutegia aldatu egin dutela Pazko jaiez geroztik. Honakoa da: astegunetan, 18:00-20:30, eta zapatu eta domeketan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Batik bat, 1970 eta 1997 arteko lanak dira. Ekainaren 12 arte dago zabalik.

BESTE HIRU ERAKUSKETA

Abdon Juaristiren antologiaz gain, Arrasaten margolari debagoiendarren bi erakusketa daude, eta beste bat Elgetan.

Arrasateko Harresi aretoan erakusten du Juan Mª del Pozok. Bakarkako lehen erakusketa du; aurretik, Arrasateko Margo Taldearekin erakutsi izan du, eta baita Aita Menni egoitzan ere. 30 bat olio eskegi ditu Harresiko paretetan; asko natura hilak dira, baina erretratuak eta paisaiak ere baditu. Azken egunak dira erakusketa hori bisitatzeko, hilaren 29an itxiko dute eta.

Bestetik, Luis Laskurain bergararrak ere Arrasaten dauka erakusketa, Arregi markoztatze dendan. Hamalau lan aukeratu ditu erakustaldirako, gehienak natura hilak. Ekaina arte duzue berau bisitatzeko aukera.

Elgetako Espaloia antzokian dago laugarren erakusketa, ekainaren 6ra bitartean. Pello Alberdi elgetarraren margolanak dira. Hiri-paisaiak hartzen ditu Alberdik inspirazio moduan.

Labur

Eskoriatzako jaietarako euskal dantza ikastaroa laster hasiko da

San Pedro jaietara begira, Euskal Herriko erromerietako dantza ikastaroa antolatu du Udalak, eta izenematea zabalik dago.

Eguenean, hilak 26, hasiko da ikastaroa eta 19:30etik 21:00etara bitartean izango da. Gainerako eskolak ekainaren 2, 9 eta 16an (eguenak) eta 21ean (martitzena) izango dira. Fandango, arin-arin, txunlalai, zazpi jauzi eta beste dantza batzuk irakatsiko dituzte. Izenemate epea eguaztenean bukatzen da, kultura-etxean, eta leku kopuru mugatua dago. 10 euro da.

Juan Artzamendiren omenaldirako entseguak izango dira asteon



Juan Artzamendi musikari arrasatear zenaren omenezko kontzertua izango da hilaren 28an, zapatua. Hori dela eta, Arrasate Musikaleko orkestrak honako entseguak deitu ditu: eguenean, 21:00etan; egubakoitzean, 21:30ean, eta zapatuan, 18:30ean.

Beldurraren Aretoa eta ipuin kontaketa saioa izango dira Oñatin

Adur, adur, ez naiz hire beldur delako Beldurraren Aretoa ipini dute Oñatiko kultura-etxean. Galtzagorri elkartearen ekimena da, eta helburua da umeek esploratzea umeendako literaturan beldurra zelan erabiltzen den eta, bide batez, irakurtzeko zaletasuna sustatzea jolasen eta ipuinen bidez.

Horren barne, beste ekintza bat ere antolatu dute: Rai Bueno ipuin kontatzailearen *Hiru beldur txiki, hiru ile luze* delako emanaldia. Eguenean, hilaren 26an, izango da, 18:00etan.

Hitzorduak

'IPARRALDEA OÑATIN', IPARRALDEKO LAGUNEKIN GOZATZEKO LAU EGUN | Tartean, Hiru Truku taldeak lehenengo aldiz joko du Debagoienean

Iparraldeko kulturaren emaitzak gertutik gozatzeko moduko jaialdia antolatu dute: Iparraldea Oñatin. Musika, antzerkia, zinema... izango dira protagonista. Hala, etzi, eguaztena, Azika taldearen txotxongilo emanaldia izango da Santa Anan, 10:45ean; eguenean, hilak 26, Iparraldeko film laburrak emango dituzte kultura-etxean, 19:30ean; egubakoitzean, Kolpe (Uztaritze) eta Malenkonia (Oñati) taldeek joko dute gaztelekuan; eta zapatuan, janari-dastatzea, folklore jaia, antzerkia eta musika izango dira egun osoan. Gauean, Hiru Trukuk joko du, besteak beste, ibarrean lehenengo aldiz.

ZINEMA |

• *Habana blues* filma ikusteko aukera Arrasaten eta Oñatin

Oñatiko kultura-etxean emango dute film hori gaur, astelehena, 19:30ean, eta baita Arrasateko Amaia antzokian ere, 20:30ean. Gaur, astelehena, ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera bi herrietan.

• *El mito de Bourne* filmaren emanaldia Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• *Las tortugas también vuelan* filma Arrasaten

Eguenean, hilak 26, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean, zineklub emanaldian. 4 euro da sarrera.

LEHIAKETAK |

• Euskal Herriko II. Graffitti lehiaketa deitu dute

Topaguneak deitu du, 15 urtetik gorakoendako. Zirriborroak bidaltzeko epea zabalik da. Honako helbidera bidali behar dira: Topagunea; Arlozabal kalea 8 bis C; 48.220 Abadiño (Bizkaia). Bakarka edo, gehienez, hiru laguneko taldetan parte har daiteke. Teknika eta gaia libreak dira; testurik izatekotan, euskaraz beharko du. Lehiaketa uztailaren 16an jokatuko da Getxon, eta 1.200 euroko lau sari daude jokoan.

• J. San Martin ikerketa beka

Eibarko Udalak bosgarrenez deitu du zuzenbide eta filosofia arloko euskarazko ikerketak bultzatzeko. 9.000 euroko beka da. Argibideak Eibarko Herritarren Zerbitzurako Bulegoan (Untzaga plaza, 1).

MUSIKA |

• Oñatiko musika eskolako irakasleen kontzertua

Musika eskolako irakasleek kontzertu didaktikoa egingo dute etzi, eguaztena, Santa Ana aretoan, 14:30-16:30. Lehenengo Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

IKASTAROAK |

• Bihar hasiko da Bekeren lore-arte ikastaroa

Lore-arte ikastaroa antolatu du Bergarako Emakume Elkarteak. Bihartik eguenera bitartean izango da, 15:00-16:30 ordutegian. 12 euro da. Izena emateko aukera duzue euren egoitzan (Barrenkalea, 31) edo 943 76 07 95 telefonora deituta. Beste zenbaki bat: 625 70 78 92.

• Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa Bergaran

Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa emango du Beart elkarteak uztailean. Izenematea zabalik dago honako telefonoetara deituta: 635 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) eta 635 71 32 69 (Maite).

• Hainbat Internet ikastaro aukeran Oñatiko KZGunean

Gaur, astelehena, hasiko da oinarrizko ikastaroa. Egunero emango dute, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Datozen egunotan, honako ikastaroak emango dituzte: bat-bateko mezularitza, e.finantzeroa eta Internet bidez lana bilatzekoa.

• Argazki-kamera digitala erabiltzen ikasteko aukera

Argazki-kamera digitala erabiltzeko ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Ekainaren 11n, zapatua, egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea zabalik dago ekainaren 7ra bitartean kultura-etxean (943 71 46 88), eta 5 euro da.

ERAKUSKETAK |

• Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa

Simon Arrieta zeramika tailerraren erakusketa zabalduko dute eguenean, hilak 26, Bergarako kultura-etxean. Ekainaren 5era arte izango da zabalik. Ordutegia honakoa da: astegunetan, 18:00-21:00; zapatutan, 12:00-14:00.

• *Udazkena Oñatiko basoetan* argazki erakusketa

Xabi Rekalde argazkilari oñatiarrak udazkenaren inguruko 14 lanen erakusketa du Arkupe tabernan. Ekainera arte duzue lanak ikusteko eta erosteko aukera.

Eguraldia

Astelehena, 23	Martitzena, 29	Eguaztena, 30	Eguena, 31	Egubakoitza, 1

Uda hasiera dotorea, bigarren zati ekaitsua eta hirugarrena pattala

Garta-denborak izan dira aste-on; maiatzaren 18, 20 eta 21ean izan dira eta izango dugun udaldia markaturik laga digute hiru egunek. Eguaztena eguzkitsua izan zen eta horrek udaren lehenengo aldia nolakoa izango den adierazi zuen; egubakoitzean ere egun eguzkitsua izan genuen, baina iluntzerako laino egin zen. Hortaz, udaren bigarren zatian ekaitzaldia izango dugu. Garta-denboren azkeneko egunean, zapatuan, Pello Zabalak adierazten duen moduan, "eguraldi pattala, triste antzean" izan genuen. Horrela bada, udaldiaren azkenetara egun lainotuak izango ditugu, udazkenari ondo etorri egiteko.

Goardiako Farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 23	Español	Araba etorbidea 14 (943 79 18 65)
Martitzena, 24	Ruiz Perez	Maalako Errabala 31 (943 79 14 09)
Eguaztena, 25	Zabala	Zarugalde 42 (943 77 16 30)
Eguena, 26	Azkoaga	Ferrerias 1 (943 79 15 15)
Egubakoitza, 27	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)

BERGARA

Astelehena, 23	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
Martitzena, 24	Camacho	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
Eguaztena, 25	Zabala	Barrenkale 25 (943 76 16 87)
Eguena, 26	Guallar	San Antonio 5 (943 7611 05)
Egubakoitza, 27	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)

OÑATI

Astelehena, 23	Garate	Kale Barria 42(943 78 05 58)
Martitzena, 24	Garate	Kale Barria 42(943 78 05 58)
Eguaztena, 25	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Eguena, 26	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 01 22)

ARETXABALETA

Astelehena, 23	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 24	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 25	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Eguena, 26	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 27	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 16
3 • 12 • 22 • 34• 42 • 47
Osagarria: 35 | Itzulketa: 4

Martitzena, 17
5 • 25 • 26 • 30 • 34 • 41
Osagarria: 17 | Itzulketa: 7

Eguaztena, 18
1 • 8 • 23 • 28 • 29 • 35
Osagarria: 15 | Itzulketa: 0

Egubakoitza, 20
7 • 9 • 14 • 22 • 41 • 42
Osagarria: 30 | Itzulketa: 5

ONCE

Astelehena, 16	54.596
Martitzena, 17	80.040
Eguaztena, 18	53.651
Eguena, 19	87.326
Egubakoitza, 20	29.472
Kupoitzarra (092 seriea)	
Domeka, 22	56.838
Kupoitzarra (025 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 19
5 • 16 • 21 • 26 • 32 • 44
Osagarria: 19 | Itzulketa: 7

Zapatua, 21
5 • 20 • 25 • 27 • 42 • 49
Osagarria: 13 | Itzulketa: 2

Domeka, 22 (saritzarra)
18 • 20 • 32 • 38 • 45
Itzulketa: 7

Gazte zerbitzuak

DIRULAGUNTZAK |
• Turismoaren sektorean bekadun aritzeko aukera. Turismoa eta merkataritzako Estatuko Idazkaritzak 8 beka deitu ditu, Espainiako edo Atzerriko turismoaren sektorean praktikak egiteko. Epea: Maiatzak 27.
• Unibertsitate beka deialdia. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak deitu du 2005/2006 ikasturtean unibertsitatea ikasketak hasiko dituzten ikasleentzako beka deialdia. Epea: Maiatzak 27.
• Kanpo-merkataritza. Gazteak kanpo-merkataritzan eta internazionalizazioan prestatzeko 60 beka deitu ditu Eusko Jaurlaritzak. Goi edo erdi mailako titulazioa dutenendako da. Epea: Ekainaren 9a.
LAN ESKAINTZAK |
• Berriozarko Udalak garbitzaileak behar ditu. Zerbitzu Anitzetako 2 lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: Ekainak 8.
• Azpeitiko Udalak 4 udaltzain behar ditu. Oposizio-lehiaketaz aukeratu dira. Epea: Maiatzak 30.
• Medikuak behar ditu Osasun eta Kontsumo ministerioak. Gizarte segurantzako administrazioan osasun ikuskaritzako kidegoko mediku ikuskatzaileen eskalako 46 lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: Ekainak 1.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

gazte informazioa

Bertan salgai

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:
•Altzarte okindegia
•Martin okindegia
Elgeta:
•Kioskoa
Bergara:
•Bolintxo okindegia
•Ogizun okindegia
•Konde okindegia
•Olabe okindegia
•Mizpildi okindegia
•Plazako Kioskoa
•Txurrerua Kioskoa
Arrasate:
•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
•Balantzategi kioskoa
•Portaloiko kioskoa
•Usue paper denda
•Bolintxo Okindegia
•Kurruxko okindegia
Aretxabaleta:
•Errasti kioskoa
•Ibarra estankoa
Eskoriatza:
•Dorleta liburudenda
Leintz Gatzaga:
•Labidea
Aramaixo:
•Plazako kioskoa
Oñati:
•Haritza Kioskoa
•Ibarrondo Kioskoa
•Eskolatxo okindegia
•Arantxa okindegia
•Irizar okindegia
•Ogibarri okindegia
•Olakua okindegia
•San Lorentzo okindegia
•Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Gaizka Olabarrieta
Maiatzaren 21ean 26 urte. Zorionak, eta besarkada bat *Peker*! Koadrilakoak.

ARRASATE
Markel Apellaniz
Maiatzaren 22an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Iñigo Apraiz
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Urte askotarako. Koadrilakoak.

ARRASATE
Maider Urrutia
Maiatzaren 23an, 10 urte. Zorionak eta muxubat! Etxekoak.

ARRASATE
Naroa Agirre
Maiatzaren 24an, 2 urte. Zorionak! Familiakoak, berezi-ki Unaien partetik.

ARRASATE
Aitor Uribetxebarria
Maiatzaren 27an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak eta Nerea.

ARRASATE
Natali Martinez
Maiatzaren 28an, Zorionak, tripaundi. Lankideak.

BERGARA
Begoña Andonegi
Maiatzaren 17an urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Nerea Egaña
Maiatzaren 19an, 31 urte. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.

BERGARA
Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean, 7 urte. Zorionak! Gurasoak eta Aitzol anaia.

BERGARA
Antxon Lazpiur
Maiatzaren 23an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Miren Urra
Maiatzean 24an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki, Jone.

BERGARA
Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean, 8 urte. Urte askotara-ko eta muxu bat! Etxekoak.



ARETXABALETA
Ander Uribarren
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Nerea eta Aitor.

OÑATI
Mikel Freire
Maiatzaren 12an, 4 urte. Zorionak, Potxolo! Familiakoak.

ESKORIATZA
Alexander Sanchez
Maiatzaren 20an, 11 urte. Zorionak eta muxu bat. Gurasoak eta senideak.

ARETXABALETA
Xabier Perez
Maiatzaren 22an, 2 urte. Zorionak eta muxutxuak. Iker eta gurasoak.



ANTZUOLA
Irati Lizarralde
Maiatzaren 27an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.

ANTZUOLA
Olatz Lezeta
Hilaren 25ean, 28 urte. Urte askotara-ko! Etxekoak eta lagunak.

ANTZUOLA
Onintza Olano
Maiatzaren 26an, 5 urte. Zorionak pitxin! Amama Karmen eta etxekoak.

Jaiotakoak

Nora Marco Saavedra
Arrasate • 3,070 Kg.
Maiatzak 15. Gurasoak: Felipe eta Marta (Arrasate). Argazkian: Nora, ama tea aitor anaiekin.

Kepa Zubizarreta Aperribai
Elgea • 3,420 Kg.
Maiatzak 17. Gurasoak: Joseba Andoni (Aretxabaleta) eta Miriam (Bergara). Argazkian: Kepa lo.

Andoni Gonzalez Jimenez
Bergara • 3,200 Kg.
Maiatzak 17. Gurasoak: Juan Carlos (Bilbo) eta Osane (Bergara). Argazkian: Gurasoekin.

Ainhoa Davila Davila
Arrasate • 2,950 Kg.
Maiatzak 17. Gurasoak: Manu (Eibar) eta Toñi (Arrasate). Argazkian: Ainhoa amarekin.

Maddalen Markuleta Etxegoien
Oñati • 2,900 Kg.
Maiatzak 18. Gurasoak: Aitor eta Berta (Oñati). Argazkian: Maddalen bapo lo.

Maria Rodriguez Velasco
Arrasate • 3,200 Kg.
Maiatzak 19. Gurasoak: Angel (Huelva) eta Ines (Arrasate). Argazkian: Maria amarekin.

Sara Cabañas Alonso
Marieta • 3,650 Kg.
Maiatzak 19. Gurasoak: Jose Manuel (Eskoriatza) eta Amaia (Azpeitia). Argazkian: Amarekin.

Izar Karasatorre Basaine
Bergara • 3,450 Kg.
Maiatzak 20. Gurasoak: Ander eta Miriam (Bergara). Argazkian: Izar bapo lo.

Nora Rodriguez Larrañaga
Antzuola • 3,950 Kg.
Maiatzak 20. Gurasoak: Andoni eta Jone (Antzuola). Argazkian: Nora bapo lo.

sms mezuak

- Natali, zorionak Astelehe-neko Goienkariko lankide-en partez! Ondo ibili datorren asteburuan!
- A, ta, Natali: lankideak tragoska horrek zain izango gaitxuzu, je, je!
- Aupa, Jo! Zorionak, amatxu! A, ta Ando, zuri be bai! Aspaldiko lagun baten partez! Nora ondo etorri!
- Garbi eta Gezu aita-amak izan diela-ta, zorionak! Xabi, ondo etorri!
- Realak badaki nahi duenean futbolean jokatzen, baina... Hurren-go denboraldira arte itxaron beharko dogu!
- Aupa, Olatz! Zorionak, potxola eta urte askotara-ko!
- Bergarako mutilak ez desanimatu! Hurrengo urtean berriz gora!
- Aupa, Bergara!
- Aupa, Eskoriatzako areto futboleko taldea! Zorionak guztioi!
- Josetxo, hurrengoan Felipe kantuandako barik guretako zeozer ekarri!

Hildakoak

Jose Manuel Copete Arbelaitz
Oñatin, maiatzaren 10ean. 53 urte.

Beatriz Lazkano Jauregi
Bergaran, maiatzaren 21ean. 74 urte.

Manuel Martinez Plaza
Oñatin, maiatzaren 21ean. 74 urte.

Ramon Zabaleta Olabarria
Bergaran, maiatzaren 20an. 83 urte.

ESKELA

Ramon Zabaleta Olabarria

Maria Luisa Irazabalbeitia Arriolaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 20an, 83 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Xabin eta Amaia semeak eta familia.
Bergaran, 2005eko maiatzaren 23an.

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Abokatuaren geltokian hainbat zalantza argitzen
Maider Morras abokatuak ezkondutako, izatezko bikoteen eta ezer sinatu ez duten bikoteen eskubide eta betebeharrak konparatuko ditu: negozio bat jartzean, etxebizitza erostean... 10:10ean izango da. Horrez gain, 09:30ean, Ines Aldaik Erdi Aroko Azokaren balorazioa egingo du.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Garta-denboren gainean Pello Zabalarekin
Astelehenean Pello Zabalari elkarrizketa egingo diote. Joan den eguaztena, egubakoitza eta zapatua garta-denboren egunak izan ziren. Horren arabera, Zabalak interpretatuko du udan zer eguraldi egingo duen.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Azpeitiko eta Arrasateko Mendi Asteak

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:15

Amnesia gaitza zer den azalduko dute

Radio Euskadi
FM 98.2

'Boulevard' | 12:10

Beste parlamentuetako presidenteei elkarrizketa

Gaur telebistan

GOITB

'Berriak' Deiane Arrietaren eskutik
20:00
Astelehenak eta asteburuak eman dituen albisteen berri emango du Deiane Arrietak, albisteen tartean.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*(Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki.*
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Eguzki lore.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 Gaurkoak. Albisteak.
19:45 Klip@.
20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak. *Sherezade* eta *Lazkao Txiki.*
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk ibarreko gazteendako egiten duen saioa.
21:30 Harmailatik. Kiroletan asteburuak eman duena Julen Iriondo kazetariaren eskutik.
22:00 Berriak.
22:30 Auñamendietan.
23:00 Harmailatik (Kirol saioaren errepikapena).
23:30 Gaurkoak.
23:45 Emisioaren amaiera.

ETB 1

Maria Luisa besteen esanekin arduratuta
21:45
Goenkale saioan Maria Luisak pentsatu ere ez du egin gura Koldok eta Leok bere etxean afalduko dutela.

06:55 Tik Tak circus.
07:25 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Montana,* eta *sorgin aspertua.*
09:05 E-Klipse@.
09:30 Travel Notes.
10:00 Elkartasunaren bideak.
10:25 Amama sukaldari.
10:35 Bertati Bertara.
11:05 Hitzetik Hortzera
11:50 Buruz buru.
12:20 Dokumentala.
13:10 Barne barnetik.
13:35 Betizu.
14:00 Gaur Egun1.
14:35 Postdata.
14:40 Eguraldia.
14:45 Hasiberriak. *Azken tangoa ospitalean.*
15:15 Italiako Giroa 2005.
17:35 Eklipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu. *Beekerekeak, Euli Ipuinak, Garfield eta lagunak, Zuzen, Doraemon,* eta *Shin Chan.*
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
21:05 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:20 Sorginen laratza.
00:00 Eguna iruditan.
23:55 Postdata.

ETB 2

'Operación Pirineos' saioko bigarren etapa
21:55
Lehiakideek beste erronka bat izango dute, Burgiraino joan eta errekan behera egin, modu berezian.

07:15 Del país de los vascos. *Roncesvalles.*
07:35 Rutas de solidaridad. *Al sur del Kurdistan.*
08:05 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:05 Matrimonio con hijos.
11:00 Stargate. *La ciudad perdida.*
12:00 La cocina de Pedro Subijana.
12:15 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pásalo.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Operación Pirineos.
23:55 El día en imágenes.
23:55 Documental.
01:00 La zona muerta.
02:40 Esta es mi gente.
03:20 Date el bote.
04:10 Pásalo. Adela Gonzalezen eta Iñaki Lopezen eskutik.
05:55 Forum.

TVE 1

'Obsesion' telesailean, pistolak tartean
17:55
Carla eta Eva elkarri tiro egiteko gertu daudenean iristen da Victor, eta Evari pistola kentzen dio.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:00 Saber vivir.
11:05 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amor real.
17:55 Obsesión.
18:35 Cuéntame cómo pasó. *Muerte natural.*
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *La esperada boda.* Badirudi ezkonduko direla, nahiz eta azken unean ezkongaiak oso ziur ez egon...
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
01:30 Telediario 3.
02:00 Los vigilantes de la playa.
03:30 Canal 24 horas.

La 2

'Tenis', Frantziako Roland Garros
11:00, 17:00
Frantziako Roland Garros izen handiko tenis txapelketako lehenengo jardunaldiak emango dituzte.

07:30 Los Lunnis. *Los minimonstruos, Alf, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 Tv educativa: la aventura del saber.
11:00 Tenis. Abierto de Francia-Roland Garros.
13:00 Los Lunnis. *Arthur.*
14:15 El enemigo en casa.
15:10 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:45 Grandes documentales. *La máquina del tiempo.*
17:00 Tenis.
19:30 Revista a su salud.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Previo UEFA Champions League.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La 2 Noticias.
22:40 El Tiempo.
22:45 Crónicas. *Invisibles.*
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Radio3.
01:30 A ciencia cierta.
02:00 Los últimos paraisos.
02:30 Documental. Natalie se vuelve salvaje en Australia.

Antena 3

Marge aspertuta bizi da, eta abentura gura du
14:00
Horregatik sartzen da Springfield-eko polizia taldean, abentura berriak bizitzea gura duelako.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:00 En buenas manos.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Springfield connection.* eta *El limonero de Troya.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Claudia Molina, Daniel Guzmán, Oscar Ladoire eta Coral Bistuer.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *El laberinto rojo.* Zuzendaria: Jon Avnet. 1997. Antzezleak: Richard Gere, Ling Bai, Bradley Whitford. Abokatu amerikar batek Pekinerako bidea hartzen du, satelitean gaineko akordio bat lortzeko helburuarekin. Bidaia hori, baina, infernu bilakatuko da, Hong Li-rekin gau bat igaro eta gero, emakumea hilda azaltzen denean.
01:00 7 dias, 7 noches. Teresa Viejorekin.
02:30 Noticias 3.
02:50 Televenta.
05:00 Saioen errepikapenak.

Tele 5



Droga gehien batzen den lekuan, hilketa
22:00
C.S.I saioan, Las Vegasen droga gehien batzen den lekura joango da Grissom ikerketa lanak egitera.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:15 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Desenganchar-se.*
23:00 CSI Miami. *Zona muerta.*
00:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Una rubia entre dos mundos.*

Astean GOITBn

Astelehena, 23

'Harmailatik' | 21:30

Kirol hitzorduz beteta egon da asteburua
Xiba elkartearen eskutik, bote luze eta herri proba topaketak egin dituzte asteburuan Aretxabaletan eta Oñatin. Horrekin batera, ohiko kirol kontuak ere landuko dituzte saioan.

Martitzena, 24

'Debarri' | 21:00, 22:30

Arrasateko proiektuen berri 'Debarri' saioan
Inazio Lakuntza Arrasateko alkatearen txanda izango da Debarri saioan. Gorritibereak Arrasaten azken aldian martxan dauden proiektuen gainean galdetuko dio alkateari.

Eguaztena, 25

'Chiloé' | 21:00, 22:30

Jordania gertu-gertutik ezagutzea nahi?
Maider Egues kazetariaren eskutik, beste herrialde batzuk ezagutzeko aukera izango dugu Chiloé saioan. Eguaztenean, saioaren estreinaldian, Jordaniara eramango gaituzte.

Eguena, 26

'Iratxo Magikoa' | 13:50, 20:30

Marrazki bizidun berriak estreinatuko ditu Goitbk
Iratxo baten gorabeheren berri izango dugu aurrerantzean Goitbko marrazki bizidunetan. Samed izeneko iratxoak egia bihurtuko ditu jendearen ametsak, baldintzekin baina...

Egubakoitza, 27

'Behazulo' | 14:30

Iparraldea Oñatin jaialdiaren gainekoak
Laixan elkartekoek jaialdiko egitarauaren berri emango dute. Iparraldeko Euskarazko Irratien Elkartekoek, berriz, batutako diruarekin zer egingo duten azalduko dute.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

‘Asteleheneko Goienkaria’-ko irakurleendako

Bete kupoia eta eskaria zeure etxean jasoko duzu, abantailekin:
%30eko beherapena eta oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK
35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ESKAERA-KUPOIA ASPEKO MATERIALA %30EKO DESKONTUAREKIN ETA PERTSONALIZATUTA ESKURATZEKO

Izen-abizenak: . . . . . .
Herria: . . . . . .
Tel.: . . . . . .
Erosketa modua:
☐ **Txartela:** . . . . . .
☐ **K/K:**. . . . . .

- **KAMISETA / Zenbat:** . . . . .

☐ **Urdina** ☐**Gorria**
☐ **M** ☐**L** ☐**XL**
☐ **Pilotariaren izena EDO**
☐ **Norberarena:**
Izena: . . . . . .

(gehienez 10 karaktere maiuskulaz)

- **PRAKAK / Zenbat:** . . . . .

☐ **M** ☐ **L** ☐ **XL**

- **PILOTA / Zenbat:** . . . . .

Zein pilotariaren sinadura:
. . . . . .

Bete kupoi hau eta bidali honako helbira:
ASPE
San Juan kalea 5, 1-eskuina
20600 Eibar

Informazioa: 943 82 04 06

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

044 zozketa: maiatzaren 30a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

EIBAR-MURCIA futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi)
- Luis Eraña (Bergara)
- Karlos Etxaniz (Bergara)
- Roque Iñarra (Antzuola)
- Jose Arbelaitz (Osintxu)
- Iñaki Altube (Oñati))
- Inma Basail (Bergara)

NAIROBITARRA mundua ezagutzeko jokoa
- Rosa Maria Aranzabal (Bergara)

ISTILU etxeko kamiseta bat
- Larraitz Trojaola (Arrasate)

045 zozketarako sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



- **MOKOGORRI**, 6 urtetik gorakoendako puzzle bat.
- **ISTILU** etxeko mutilendako kamiseta bat.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
maiatzaren
23a



Goizean: Lainoak eta eguzkia
Arratsaldean: Lainoak eta eguzkia

Hamarrekoa

KIKE AMONARRIZ I SALTSEROA

"Udalekuetan ikusi nuen bazegoela euskaraz funtzionatzen zuen mundu bat"

OIHANA ELORTZA

Filologoa eta soziolinguista da Kike Amonarriz. Baita umorista eta ipurtarina ere. Horregatik, saltsero bat dela dio berak. Euskararen inguruan egin du beti lan, baina gaztetan ikasi zuen berak euskara, 16 urte inguru zituela. Umorea, berriz, lehenago probatu zuen, pailazoarena egiten. Orain, euskara onaren formula Euskal Herrian zabaltzen ari da, umoretsu beti.

Oihana Elortza

1. Inoiz egin duzu hutsik Tolosako inauterietan? Behin, 14 urte nituenean, eskiatzera joan ginen. Ez dut sekula gehiago eskiatu.

2. Egia da gaztetan gaztelaniaz bizi zinela? Etxean euskaraz egiten nuen, baina etxetik kanpo gaztelaniaz bizi ginen Tolosako gazte asko. Tartean, gaur egun euskal munduan lanean dabiltzan batzuk. 12 bat urte nituenean Abaigarrera joan nintzen udalekuetara eta hantxe deskubritu nuen bazegoela mundu bat euskaraz funtzionatzen zuena.

3. Orduan erabaki zenuen euskaraz egitea? Beranduago. 15-16 urte genituenean, arratsalde baten, lagunek elkarri galdetu genion: zergatik ez dugu aurrerantzean euskaraz jarduten?

4. Baina nork irakatsi zizueten euskara? Tolosako gau-eskolan ikasi nuen nik euskara eta Antton Karrera izan zen nire irakaslea. Irakasle ona, gainera. Urte batean ikasle eta hurrengoan irakasle nintzen.

5. Eta noiz hasi zinen umorea egiten? Abaigarko udalekuetan Hernaniko lagun batzuek Oto, Poto eta Pototoren pailazokeriak egiten zituzten. Oto falta zuten, eta niri galdetu zidaten ea bere tokia bete nahi nuen. Eta nik baietz.

6. Pailazo hasi zinen orduan? Udalekuak bukatu zirenean, Aranon beste emankizun bat zutela esan zidaten. Trenean joan nintzen hara eta hantxe irabazi nituen nire lehenengo mila pezetak, pailazoarena egiten.

7. Euskaldunok umorea dugula defendatu duzu zuk beti. Egia da eta. Beti diote serioak garela, baina nork baino umore gehiago edo gutxiago dugu? Andaluzekin konparatzen gaituzte beti, baina hori topiko bat da. Eta eskimalekin edo berebereekin konparatzen bagaituzte? Auskalo.

8. Euskara onaren formula aurkitu duzu Joxerra Gartzia eta Andoni Egañarekin. Zuzena, jatorra eta egokia dena da euskara ona. Noski, jakin behar da une bakoitzean euskara aproposa erabiltzen, ez du balio bestela.

9. SMSetakoa euskara egokia da? Bai, lortzen dutelako helburua. Euskara lehenbiziko aldiz eguneratu da teknologia berrietara gainerako hizkuntzekin batera, eta hori oso garrantzitsua da.

10. Noiz ikusiko zaitugu berriro betaurrekoekin eta bizarrarekin? Begietan ebakuntza egin nuen eta bizarra, koadrodun alkandora eta panazko frakak 80ko hamarkadan utzi nituen.

Biharamuna

Iban Arantzabal

Sastre eta Rogelio

Ez zen bidalita etorri Euskal Herrira, **Rosa Lopez** eta **Isabel San Baldomero** moduan. Senadore izandako bi hauek aldarrikatzen dute beraien eskubidea munduan hara eta hona ibiltzeko, baina beraiena bakarrik, paterak akorduan hartu barik. Galerazten zaienei errespetu gutxi erakutsita.

Bestelakoa da **Alfonso Sastre**k eman zigun mezua: herrien artean gerrarik ez dela egon behar, ezta klaseen arteko bakerik ere. Mirestekoa, bai, Sastre eta **Eva Forest** bikote idazleak duen bizitzeko era koherentea. Aspaldi afaldu barik nengoen utopia aldarrikapen bihurtzen duten komentarioak entzuten. Kuba eta Venezuelatik ekarri duten baikortasun hori… bai, posible da oraindik. Sinistuta nago.

Afaldu ostean taula gainera. **Rogelio Botanz**ekin atera zen. "Kultura erresistentziako kide batekin" Sastrek dioen moduan. Ezin da ulertu jende gehiagok mezu hau entzun ez izana. Gerturatu beharko lukete antzokietara, kultura-etxeetara, gaztetxeetara, liburuetara, kantura eta poesiara. Ze Sastrek dioen moduan: "bizitzaren kontu hau egun batean amaitu egiten da, egun bat heldu eta ez gaude gure kalean. Egun batean gure auzoan esango dute: hil da bat. Egun bat da inoiz ezer izan ez bagina moduan". Eta Rogeliok gehitu: "Musikaren kontu hau egun batean amaitu egiten da. Egun batean dagoeneko ez gaude antzokian. Egun batean gure auzoan esango dute itxi egin dutela. Egun bat da, arnasa bizia izan ez bagina moduan".

Bizi!
Etxebizitzen gaineko gehigarria, maiatzaren 27an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Aretxabaletako Udala • Excavaciones Arrasate • Edertu altzariak • Sofa leku • Banak importa • La Caixa • Sukia • Arrieta San Miguel inmobiliaria • Kutxa • Mikel Lasa aseguruak • Zutarri eraikuntzak • Promociones Esalbi • Elgetako Udala • Visesa

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA